



17. zkia. 2014ko apirila

OSASUNA ETA HIRI-GARAPEN JASANGARRIA

Tokiko hirigintza-jarduerek
osasunean zer eragin daukaten
aztertzeko gida praktikoa

www.udalsarea21.net



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

UDALSAREA 21EKO LAN-KOADERNOEN BILDUMAREN AURKIBIDEA:

1. zenbakia. 2006ko urria «EAE-ko Tokiko Agenda 21 prozesuak aztertzea. Oztupoak eta estrategia arrakastatsuek identifikatzea aurrerapauso gehien eman dituzten udalerrietan kudea ditzaten».
2. zenbakia. 2006ko urria «Oztupo eta strategiak ekintza-planak abiarazteko. 21 Bulegoak: ereduak formulatzea».
3. zenbakia. 2007ko iraila «Natur inguruneke udal-eskumenei buruzko gida».
4. zenbakia. 2008ko urtarrila «Iraunkortasunaren eta Tokiko Agenda 21en dimentsio soziala. Tokiko Agenda 21etan alderdi sozialak sartzeko irizpideak».
5. zenbakia. 2008ko urtarrila «Klima-aldaketa. Udaleko CO₂e-emisio baliokideen kalkulua. Tresnari buruzko erabiltzaile-eskuliburua».
5. zenbakia. 2011ko urtarrila «Klima-aldaketa. Udaleko CO₂e-emisio baliokideen kalkulua. Tresnari buruzko erabiltzaile-eskuliburua» (Eranskina)
6. zenbakia. 2008ko urtarrila «Sailkatutako jardueren erregularizazioa. Laguntza tresnak». (1. zatia)
7. zenbakia. 2008ko urtarrila «Sailkatutako jardueren erregularizazioa. Laguntza tresnak». (2. zatia)
8. zenbakia. 2009ko otsaila «Klima-aldaketaren aurkako tokiko strategiak martxan jartzeko gida».
9. zenbakia. 2009ko otsaila «Lehenengo pausuak genero-ikuspegia Tokiko Agenda 21 prozesuetan txertatzeko. Jarraibide metodologikoak».
10. zenbakia. 2009ko uztaila «Ingurumen-hezkuntza iraunkortasunerako: Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 koordinatzea. Hausnarketa estrategikoa eta gako operatiboak Udal garapen iraunkorraren esparruan».
11. zenbakia. 2010eko abendua «Biodibertsitaterako hurbilpena tokiko eremutik».
12. zenbakia. 2011ko urtarrila «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua».
13. zenbakia. 2011ko maiatza «Airearen kalitatea. Airearen kalitatea udal mailan kudeatzeko gakoak eta laguntza-tresna».
14. zenbakia. 2012ko urtarrila «Komunika. Komunikaziorako gida praktikoa Tokiko Agenda 21ean».
15. zenbakia. 2012ko martxoa «Biodibertsitatea kudeatzea eta kontserbatzea, tokian-tokian. Diagnostikoa, ekintzak eta tresnak».
16. zenbakia. 2013ko abendua «Urari buruzko koadernoak. Hiri eremuetako ura eta ingurune hidrikoa».
17. zenbakia. 2014ko apirila «Osasuna eta hiri-garapen jasangarria. Tokiko hirigintza-jarduerak osasunean zer eragin daukaten aztertzeke gida praktikoa».

IDAZLE TALDEA:

Abanto Zierbenako Udala; Arrasateko Udala; Azpeitiako Udala; Basauriko Udala; Donostiako Udala; Erandioko Udala; Hernaniko Udala; Portugaleteko Udala; Gasteizko Udala; Zarautzeko Udala; Zuiako Koadrila; Debegesa, S.A.; Uribe-Kostako Zerbitzuen Udal Elkarte (Ekogune).

Donostiako Ingurugela; Cristina-Enea Fundazioa; Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila; Ihobe-Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoa; Inguru Ingurumenaren Ingeniaritza eta Kudeaketa, SL.

ARGITARALDIA:

1.a, 2014ko apirila

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Urkixo Zumarkalea, 36-6.a. 48011 Bilbao
Tel.: 900 150 864

www.ihobe.net
www.udalsarea21.net
www.ingurumena.net

ARGITARATZAILA:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako
Sozietate Publikoa

DISEINUA ETA DIAGRAMAZIOA:

Canaldirecto
www.canal-directo.com

ITZULPENA:

Mara-Mara

Argitalpen hau «Healthy Urban Development Checklist» gidan dago oinarriturik. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskertu egiten dio Hegoaldeko Gales Berriko (Australia) Osasun Ministerioari berau gure egoerara egokitzeko emandako baimena.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

 **ihobe**
Idazkaritza Teknikoa
Secretaría Técnica



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Txosten hau egiteko, % 100ean birziklatutako papera erabili da, klororik gabekoa. Erabilitako paperak egiaztagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Europako Iparraldeko Beltxarga eta Europako Etiketa Ekologikoa.



17. zkia. 2014ko apirila

OSASUNA ETA HIRI-GARAPEN JASANGARRIA

Tokiko hirigintza-jarduerek
osasunean zer eragin daukaten
aztertzeko gida praktikoa



www.udalsarea21.net



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

AURKIBIDEA

05. orrialdea

01. SARRERA

- 1.1. Zergatik hartu behar da kontuan osasuna tokiko hiri-plangintzan?
- 1.2. Nola sortu zen ekimena?
- 1.3. Aurkezpena

08. orrialdea

02. OSASUNA ETA BERE MUGATZAILEAK. OSASUN ARLOKO GIZARTE DESBERDINTASUNAK

- 2.1. Osasun kontzeptua. Osasuna, gaixotasunik ez izatetik haratago
- 2.2. Osasunaren gizarte-mugatzaileak
- 2.3. Osasun arloko gizarte-desberdintasunak. Ekitatea Osasunean

11. orrialdea

03. OSASUNA ETA HIRI GARAPEN JASANGARRIA

- 3.1. Baina zer egin daiteke toki mailan?
- 3.2. Hiri-garapen osasungarria

13. orrialdea

04. HIRI PLANGINTZAREN ERAGINPEAN DAUDEN OSASUNAREN GIZARTE MUGATZAILEAK

- 4.1. Elikadura
- 4.2. Mugikortasuna
- 4.3. Oinarrizko ekipamenduen sarea
- 4.4. Enplegua
- 4.5. Jarduera fisikoa
- 4.6. Espazio publiko irekiak
- 4.7. Etxebizitza
- 4.8. Komunitatearen segurtasuna eta babesza
- 4.9. Ingurumena

24. orrialdea

05. TOKIKO HIRIGINTZAKO EKIMENEK OSASUNEAN DAUKATEN ERAGINAREN AZTERKETA

5.1. Metodoa

5.2. *Modus operandi*-a

I. FASEA. Ekimenaren azterketa

II. FASEA. Eraginpean dauden osasun arloko mugatzaileak identifikatzea

III. FASEA. Funtsezko alderdien ebaluazioa

IV. FASEA. Txostena egitea

33. orrialdea

06. METODOA KASU PRAKTIKO BATEAN APLIKATZEA

6.1. Igogailu publiko bat eta bi espazio publiko ekipatu eraikitzea

36. orrialdea

07. BIBLIOGRAFIA

38. orrialdea

08. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. GALDETEGI AZKARRA

2. ERANSKINA. GALDETEGI ESPEZIFIKOAK

3. ERANSKINA. KASU PRAKTIKOAREN AMAIERAKO TXOSTENA

1.1. ZERGATIK HARTU BEHAR DA KONTUAN OSASUNA TOKIKO HIRI-PLANGINTZAN?

Gaur egun, komunitate zientifikoak, eta gero eta gehiago, eremu politikoak, onartzen dutenez, gizarte-baldintzek, neurri handi batean, pertsonen osasuna baldintzatzen dute. Gizarte-baldintzen eta osasun eta ongizatearen arteko harremanari buruzko ebidentzia ugarietako asko lortu da onarpen hori, batez ere.

Pertsonen osasuna gizabanakoen ezaugarrien mende ez ezik, bizi diren testuinguruarekin zerikusia daukaten faktore askoren mende ere badago. Osasunaren gizarte-mugatzaileen eremuan, komunitateen osasunean eragina daukaten faktoreen artean, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, airearen kalitatea, gizarte-sareak eta oinarrizko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko ahalmena daude, baita pertsonen baldintza sozioekonomikoak ere.

Osasun publikoko ohiko joera — gaixotasunetatik babestu, prebenitu eta arrisku-faktoreak murriztean oinarritzen da — osasun publiko positiborantz bideratzen hasi gara. Osasunaren ikuspegi positibo horrek osasunaren sustapena indartzen du, eta osasun-aktiboak, hau da, pertsonen eta gizarteek beren osasunari edo ondareari eusteko edo hobetzeko dauzkaten

ahalmenak, ardaztat hartzen ditu. Osasunerako aktiboak hauxe dira: gizabanako, komunitate eta populazioek osasunari eta ongizateari eusteko daukaten ahalmena indartzen duen edozein faktore edo baliabide.

Eredu honek iradokitzen duenez, osasuna eta ongizatea sortzen edo areagotzen duten inguruneak eta aukerak garatuz, populazioaren osasuna hobetu daiteke. Horregatik, aukera osasungarriak errazteko eta eskura jartzeko logikari jarraitzen dio.

Hainbat herrialdetan, osasunean eragin positiboa daukaten hiri-plangintzak sustatzeko ekimenak egin dituzte. Hori bultzatzeko funtsezkoa izan den ebidentzia berrikusi duen azterketetako bat Michael Marmotek 2010ean, Erresuma Batuko NICEn enkar-guz (National Institute for Clinical Excellence), lideratu zuena da.

Aipatutako azterketan, hiri-ingurune faktoreen eta osasun arloko emaitzen eta desoreken arteko ebidentzia zientifikoa agertzen da.

Hiri-ingurunearen eraginen eta osasunaren arteko lotura horiek hirigintzako proiektuek osasunean daukaten eragina sistematikoki aztertzen laguntzeko tresnak garatzeko oinarriak dira, betiere eragin positiboak ahalik eta handienak izateko eta negatiboak deuseztatu edo arintzeko helburuarekin.

1.2. NOLA SORTU ZEN EKIMENA?

EAEko errealitateak adierazten duenez, herritarren % 97 Tokiko Agenda 21 daukaten udalerrietan bizi dira —agenden heldutasun maila udalerrri batetik bestera aldatu egiten da—. Tokiko Agenda 21 prozesuen plangintza estrategikoa Tokiko Ekintza Planetan islatzen da. Plan horietan, udalerrriak herritarren bizi-kalitatea hobetzeko landuko dituen ekintzak jasotzen dira, betiere etorkizuneko biztanleena ez kaltetzea bilatuz.

Tokiko Agenda 21ak garatzeko erreferentziazko markoa **Aalborg+10-eko Konpromisoak** dira. Hitzaurrean adierazten duenez, konpromiso horiek, berez, gobernatzen dutenek herritarrekiko dituzten erronka eta erantzukizunei emandako erantzuna dira, eta «lehentasunak gure tokiko egoera eta beharren arabera aukeratzeko abiapuntu» gisa onartzen dituzte.

Zehazki, 7. Konpromisoan, «Osasunaren aldeko tokiko ekintza» aipatzen da.

Hala ere, orain arte egindako lana gutxietsi gabe, osasun arloko tokiko ekimenen tipologia osasunaren ikuspegi klasikoarekin, eta bereziki, osasun-ekipamenduekin, lotuta zegoela esan behar dugu, eta ez zuela kontuan hartzen osasunaren garapena eta osasunak bestelako aldagai batzuekin daukan lotura jorratuz gero sortzen zaigun aukera sorta zabala.

Horren guztiaren ondorioz, eta Udalsarea 21eko (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) kideek adierazitako gogoeten eta kezken ondorioz, osasun arloko auziak udalerrien eta Tokiko Agenda 21en testuinguruan aztertze berariazko lantalde bat sortzeko beharra sortu zen.

Testuinguru horretan, Osasuna eta Hiri Garapen Jasangarria Ekitaldea diseinatu eta martxan jarri zen, lehenengo pauso gisa, toki-administrazioak udalerrietako hiri-plangintzan osasuna barneratzeko daukan funtzioa eta ardura zehazteko.

AALBORGEKO 7. KONPROMISOA: «OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA»

Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzeko eta babesteko konpromisoa hartu dugu.

Hori dela eta, helburu honekin lan egingo dugu:

1. Jendearen kontzientzia areagotzea eta osasun arloko mugatzaile multzo zabal baten gaineko jarduerak egitea; gehienak, osasun arloarekin zuzenki lotu gabekoak.
2. Gure hiriei ongizatearen aldeko aliantza estrategikoak eraikitze eta horiei eusteko baliabideak emango dizkieten udal mailako osasun-planak egitea sustatzea.
3. Osasun arloko desberdintasunak murriztea eta txirotasunaz arduratzea. Horretarako, desberdintasun horien murrizketan emandako aurrerapausoei buruzko aldizkako azterketak egin behar dira.
4. Osasunaren gaineko eraginaren ebaluazioa sustatzea, sektore guztiek osasuna eta bizi-kalitatea hobetzearen alde lan egiteko bide gisa.
5. Hiri-plangintzako eragileak mugiaraztea, beren plangintza-estrategia eta -ekimenetan osasun publikoa kontuan har dezaten.

1.3. AURKEZPENA

Argitalpen honetan, Osasuna eta Hiri Garapen Jasangarria Ekitaldeak, lantaldeak hasieran finkatutako helburuei erantzuteko, landu dituen gaien bilduma eta laburpena jaso dira.

Maila estrategikoan, osasuna aldagaia udalerrietako hiri-plangintza, -garapen, eta -kudeaketa prozesuetan sartzea zen helburua.

Eta maila zehatzagoetan:

- Toki-administrazioetako eragileak osasunaren gizarte-mugatzailen kontzeptuaren esparruaz eta hiri-espazioaren eta osasunaren arteko loturaz sentsibilizatzea.
- Hirigintza-plangintzako eta -garapeneko politikek, planek eta proiektuek osasunean duten eragina aztertzeke tresna bat diseinatzea.
- Informazioaren tratamendua normalizatzea, udalerrietan hirigintza arloan egiten diren jarduerak osasunean dauzkaten eraginen berri emateko.

Beraz, Udalsarea 21en koaderno berri honen funtzioa tokiko hirigintza-ekimenek osasunean daukaten eragina aztertzeke gida praktikoa bat izatea da, eta

ondokoei zuzenduta dago: hiri-ingurunea aldatzea dakarren, eta beraz, bizimodu osasungarria sustatzeko erabiltzea ahalbidetzen duen edozein ekimen (plan, programa, jarduera) planifikatzen, garatzen edo jarraipena egiten esku hartzen duten pertsona guztiei.

Horrela, dokumentuak Udalsarea 21en eta lloberen hiri-plangintzari buruzko aurreko argitalpenetako alderdi batzuk osatzen ditu. Aipatutako argitalpenak ezinbesteko erreferentziak dira, adibidez:

- Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko.
- Hirien Plangintzan Aplikatu Beharreko Jasangarritasun-Irripideak.
- Hirigintza-Planeamenduak Jasangarritasun-Irripidez Idazteko Eskuliburua.

Gidaliburu hau bi eduki-bloke handiz osatuta dago. Bata, teorikoagoa da, eta osasunak hiri-plangintzan duen tokia kokatzen du, hiri-plangintzaren eraginean dauden osasunaren mugatzaile nagusiak agerian utziz; bestea, berriz, praktikoagoa, eta tokiko hirigintza-ekimenek osasunaren mugatzaile horietan daukaten eragina baloratzeko metodoa eta tresna aurkezten ditu.

OSASUNA ETA BERE MUGATZAILEAK. OSASUN ARLOKO GIZARTE DESBERDINTASUNAK

2.1. OSASUN KONTZEPTUA. OSASUNA, GAIXOTASUNIK EZ IZATETIK HARATAGO

OMEk proposatutako definizioaren arabera, OSASUNA «erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, ez gaixotasunik edo oinazetik eza bakarrik». (OMEren 1946ko Konstituzioa).

Definizio horrek muga asko dauzkan arren, bereziki esanguratsuak diren hainbat elementu barne hartzen ditu:

- Osasuna zentzu positiboan, ez gaixotasunik eza gisa bakarrik.
- Osasuna, jatorri askotako elementu gisa.
- Osasuna, eragile askoren ardura gisa.
- Osasuna, eguneroko bizi-kalitatea eta funtzionatzeko ahalmena hobetzeko baliabide gisa, ez helburu gisa.

Osasuna Sustatzeko I. Konferentzian (Geneva, 1986) sortu zen Ottawako Gutunean, osasuna

izateko hainbat aurrebaldintza zehaztu, eta honela dio hitzez hitz.

Aurrebaldintza horiek onartzeak baldintza sozial eta ekonomikoen, ingurune fisikoaren, norberaren bizimoduaren eta osasunaren artean dauden lotura estuak agerian uzten ditu.

2.2. OSASUNAREN GIZARTE- MUGATZAILEAK

Osasunaren ikuspegi biomediko tradizionalaren arabera, osasun-arazoaren eragile nagusiak faktore indibidualekin lotuta daude, esaterako: kausa genetikoa eta herentziazkoekin, aukera pertsonalekin edo osasun-zerbitzuekin.

Gaur egun, badakigu gure eguneroko bizitzako eta gure ingurune alderdi askok eragiten dutela gure osasun egoeran. Osasunerako Mundu Erakundeak osasunaren gizarte-mugatzaile izena jarri die faktore horiei.

OSASUNA SUSTATZEKO OTTAWAKO GUTUNA, OME, GENEVA, 1986

Hauek dira osasunerako baldintzak eta betebeharrak: hezkuntza, etxebizitza, elikadura, errenta, ekosistema egonkorra, gizarte-justizia eta berdintasuna. Osasunaren hobekuntza orok, halaber, aurrebaldintza horietan oinarritu behar du.

Osasunaren gizarte-mugatzaileak jendearen jaiotzaren, bizitzaren eta harremanen testuinguruetan dauden gizarte-baldintzak dira; azken finean, gizabanakoaren eta/edo komunitatearen osasunari eragiten dioten pertsonen bizi-baldintzak.

Osasun-sistemak osasunean egiten duen ekarpena % 25ekoa dela zehaztu da; pertsonen bizitzako eta laneko gizarte- eta ekonomia-giroak, berriz, gutxi gorabehera % 50ekoa. Beraz, bestelako mugatzaileek daukaten pisua, besteak beste, bizitokiak, heziketa mailak, gizarte-harremanek, lan motak, diru-sarrerak mailak, zerbitzuen eskuragarritasunak, politika ekonomiko, kultural eta ingurumenekoek eta merkatuko legeek askoz ere handiagoa da osasun-sistemarena berarena baino.

Osasunaren gizarte-mugatzaileak azaltzeko eta osasun arloko gizarte-desberdintasunak nola sortzen diren ulertzeko, hainbat eredu daude. Dalghren eta Whitehead-ena da erabilienetako bat. Eredu horren arabera, osasunean eragiten duten faktoreak ortzadarraren moduko geruzetan banatzen dira (Ikus 1. Figura).

- Erdian, **O Mailan**, aldatu ezin diren faktoreak daude, esaterako: adina, sexua edo gizabanakoaren gorpuzkerako beste alderdi batzuk.
- Lehenengo geruzan, **1. Mailan**, gizabanakoen bizi-jokabideekin lotutako faktoreak daude, eta horien gainean, era berean, gizarte- eta komunitate-testuin guruak eragiten dute, **2. Mailak**, baita bizi-baldintzek eta lan-baldintzek ere, **3. Mailak**.

- Azkenik, laugarren geruzan, **4. Mailan**, ingurune makropolitikoa dago. Ingurune horretan baldintza sozioekonomiko, kultural eta ingurumen-baldintza orokorrak barne hartzen dituen ingurune makropolitikoa da.


2.3. OSASUN ARLOKO GIZARTE-DESBERDINTASUNAK. EKITATEA OSASUNEAN

“Diru-sarrera gutxien, heziketa maila txikiena edo lan-egoera txarra daukaten pertsonak gutxiago bizi ohi dira, eta osasun-arazo gehiago edukitzen dituzte.”

Osasun arloko gizarte-desberdintasunak gizabanakoen edo populazio taldeen artean sistematikoki agertzen diren desberdintasun bidegabe eta saihegarriak dira, sozialki, ekonomikoki, demografikoki edo geografikoki definituak. Pertsonak beren gizarte-maila, genero, adin, jaioterri edo etniaren arabera jaso ditzaketen hainbat aukera eta baliabideen emaitza dira eta beren osasunean zuzeneko eragina dute.

Diru-sarrera gehien, heziketa maila handiena edo lan-egoera onena daukaten pertsonak luzaroago bizi ohi dira, eta osasun-arazo gutxiago edukitzen dituzte. Hori bidegabea da gizarte-aukera berak ez daukatenentzat.

1. FIGURA. OSASUNAREN GIZARTE MUGATZAILEEN EREDUA



Iturria: Dalghren y Whitehead. 1993.

Hala herrialdeen eta udalerrien artean nola haien barruan, osasun arloko gizarte-desberdintasunak daude. Maila sozioekonomikoaren eta osasunaren arteko erlazioak gradiente bat erakusten du gizarte-maila osoan; hau da, ezberdintasunik handienak gizarte-eskalako muturreko taldeen artekoak diren arren, gizarte-talde guztien artean daude ezberdintasunak, eta posizio ekonomikoan jaisten goazen heinean, okertu egiten dira (ikus 2. Figura).


Ikerketa zientifiko askok erakutsi dutenez, osasun alorreko desberdintasunek gehiegizko hilkortasuna eragiten dute, eta gaixotzeko arrisku-faktore ezagunek baino erikortasun handiagoa. Osasun arloko gizarte-desberdintasunak aipatzerakoan, nabarmentzekoa da desberdintasun horiek ez direla faktore biologikoen edo pertsonen aukera indibidualen ondorio, dagokien talde sozioekonomikoaren arabe-

ra pertsonengan metatzen diren faktoreen ondorio baizik, eta politika publiko eraginkorren bidez alda daitezkeela.

Ekitatea Osasunean kontzeptuak zuzeneko lotura du MOEren testu nagusiek azaltzen dituzten giza eskubi-deen kontzeptu-ildoarekin. MOEren konstituzioak 1946an zera zioen: «pertsona ororen funtsezko eskubi-deetako bat da ahalik eta osasun-maila onena eskuratzea, arraza, erlijio, ideologia politiko edo baldintza ekonomiko eta soziala edozein delarik ere».


Ekitatea Osasunean kontzeptuak esan nahi du pertsona guztiek beharko luketela ahalik eta osasun onena eskuratzeko aukera berdina izan eta inor ez litzatekeela desabantaila-egoeran egon, gizarte-maila dela eta, edo gizarte-faktoreek mugatutako bestelako baldintzak direla eta (ikus 3. Figura).

2. FIGURA. MAILA SOZIOEKONOMIKOAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO LOTURA



Iturria: «Reducing health inequity through a national plan of action». Tone P. Torgersen.

3. FIGURA. EKITATEA OSASUNEAN



Iturria: Norwegian Directorate of Health y Norwegian Ministry of Health and Care Services. 2006.

OSASUNA ETA HIRI GARAPEN JASANGARRIA

Aipatu dugun bezala, osasun-arazoak ezin ditugu bakarka jorratu. Besteak beste hezkuntza, ingurumen, lan edo etxebizitza sektoreetako politiken bitartez lortu diren osasun arloko aurrerapen handiak aski ezagunak dira. Mugak dituzten arren, hauek dira adibideetako batzuk: laneko arriskuak prebenitzeko legea, laneko gaixotasunen aitorpena, ingurumen arloko legedi zabala eta etxebizitzetako osasungarritasun eskakizunak.

3.1. BAINA ZER EGIN DAITEKE TOKI MAILAN?

Udal-gobernuek osasunean eta gizarte-desberdintasunetan eragin nabarmena daukate. Izan ere, neurri handi batean, faktore erabakigarri askoren gaineko delibramenduak hartu eta ekintzak egiten dituzte, adibidez: hiri-plangintza, garraio, etxebizitza, ingurumen, haur eta adinekoentzako zerbitzu, kulturarekin, kirolarekin, lanarekin eta langabeziarekin lotutako zerbitzu eta tokiko ekonomiaren gainekoak. Udalek, zerbitzuak kudeatu eta araudiak egiteaz gain, herritarren ahalduntzea eta partaidetza sustatu dezakete.

“Herritarren partaidetzak gizartea kohesionatzen laguntzen du, gizarte-desberdintasunak murrizten ditu eta herritarren osasuna hobetzen du.”

Herritarrek beren arazoen identifikazio eta definizioan, lehenestean eta esku-hartzeen planifikazioan eta ebaluazioan parte hartuz gero, erabakiak eta ekimenak beren ize-nean baina beren partaidetzarik gabe zehazten direnean sortzen den aurkako jarrera saihesten dugu. Horregatik, Tokiko Agenda 21ek herritarren partaidetza aurreikusi eta aktiboki sustatzen du, garapen jasangarrirako oinarritzko arau gisa. Gainera, partaidetzak herritar taldeen jakintzari balio bat ematen dio, eta prozesua luzeagoa izan daitekeen arren, oro har, ekimenek eta hartzen diren erabakiek herritarren onarpen handiagoa lortzen dute.

Partaidetza horren alde egiteko —zehazki, plangintzako dokumentuen izapidetzean—, udalek edukien, proiektuen eta aurreikuspenen inguruko informazio publikoa eman behar dute, gaur egungo egoera adierazten duten eta egoera hori hartzen diren erabakien ondorioz etorkizunerako aurreikusten den irudiarekin alderatzen duten informazio-tresnen bitartez.

Komunitate osasungarri eta kohesionatuen oinarritzko printzipioetako bat hauxe da: erabaki-hartzean parte hartzea, politiken plangintzan eta garapenean eragiteko helburuarekin. Gizarte-kohesioa gizarte arloko diskriminazio, desberdintasun, bazterkeria eta eskusio moduak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko behar kolektiboarekin lotuta dago.

Baliabideak eskuratzeko aukera-berdintasuna sustatuz, gizarte-elkarrekintza eta pertsonen arteko loturak bultzatzen dituzten ingurunez hornituz eta pertsonengan tokiarekiko lotura eta bertakoa izatearen sentimendua bultzatuz, gizarte-kohesioa eta desberdintasunen murrizketa bultzatzen dira, eta horren ondorioz, herritarren osasuna hobetzea lortzen da.

3.2. HIRI-GARAPEN OSASUNGARRIA

Hiriak eta herriak hirigintzaren baldintzapean daude. Hirigintzak pertsonen arteko harremana eta mugitzeko modua mugatu edo lagundu dezake eta, azken finean, hiriak osasungarriak izatea edo ez baldintzatzen du. OMEren Europarako eskualde-bulegoak Hiri Osasungarriak programa abiarazi zuen, 1987an. Ia 30 urte geroago, inguruneak, eremu publikoak, gure jarrerak, gure harremanak, eta hedaduraz, gure osasuna baldintzatzen dituela irmo berresten du.

Ingalaterrako osasun arloko desberdintasunen berrikuspen estrategikoak, **Marmot Berrikuspena** deiturikoak, lurralde-antolamenduaren, eraikitako inguruaren, osasunaren eta osasun arloko ezberdintasunen arteko harremana agerian jarri zuen.

Berrikuspenak frogatu duenez, hiri-plangintzak elikaduran, jarduera fisikoan, etxebizitzan, lanean, garraioan eta hiri-konexioetan, espazio publiko irekietan, gizarte-azpiegituran, gizarte-kohesio eta -konektibitatean eta ingurumenean eragina dauka, eta horiek guztiek, osasunean.

Azterketak erakutsi zuen, era berean, osasunean gizarte gradiente bat dagoela: gizarte-egoera ahuleneko auzoetan bizi diren pertsonak lehenago hiltzen dira eta osasun txarra ahultasun maila txikieneko auzoetan bizi diren pertsonak baino denbora luzeagoan izaten dute. Gizarte-desberdintasunek eragiten dituzte osasun arloko desberdintasun horiek, ingurumenekoak barne hartuta. Izan ere, ingurumeneko desabantailen banaketan ere gradiente argia dago: auzo txiroenetan bizi diren pertsonak beren osasunean ondorio negatiboak sortzen dituzten ingurumen-baldintzen mendeago daude.

“Plangintzarako bi arrazoi daude: pertsonen arteko ekitatea eta etorkizunerako bizi-bermeak.”

F. STEINER, 1991

Marmot Berrikuspenaren laguntzaz, halaber, hirigintza-proiektuetako elementuek osasunean sortzen dituzten eragin eta ondorioak sistematikoki aztertzen dituzten tresnak garatu eta egokitu dira, haietan aldaketak egiteko, edo osasunaren gaineko ondorio positiboak maximizatu eta negatiboak deuseztatu edo arinduko dituzten alternatibak planteatzeko.

Zehazki, **3 ekintza-ildo nagusi** gomendatzen ditu, eraikitako inguruneak toki mailan osasuna sustatzen duela eta herritarren arteko desberdintasunak murrizten dituela ziurtatzeko:

- **1. ildo:** Osasun arloko desberdintasunak murriztu eta klima-aldaketa arinduko duten politikak eta esku-hartzeak lehenestea, honela:
 - Joan-etorri aktiboak sustatuz.
 - Espazio «berde» irekien kalitatea hobetuz.
 - Toki mailan, elikagaien kalitatea hobetuz.
 - Etxebizitzan energia-eraginkortasuna hobetuz.
- **2. ildo:** Plangintza, garraioa, etxebizitza, ingurumena eta osasun-sistemak erabat integratzea, osasunaren gizarte-mugatzaileak jorratzeko.
- **3. ildo:** Gizarte-sareen sorrera eta komunitateen parte-hartzea eta ekimena bultzatuko duten ebidentzietan oinarritutako toki-programak eta jarduerak garatzea.

Hiri-garapenak espazio publikoa indarreko legediaren arabera eraldatzea dakar. Lurzoruaren Legeak, plan sektorialek, hiri-antolamenduko plan orokorrek eta udal-ordenantzek garapen hori baldintzatu egiten dute, baina ez dira faktore mugatzaileak *per se*.

Hain zuzen, historiak hirigintzan osasun aldagaia barne hartzearekin estuki lotutako bi mugarri jaso ditu, bi hiri garrantzitsuren eraldaketa fisikoaren ingurukoak: bate-tik, Londresko estolda-sarearen abiaraztea —Joseph Bazalgette ingeniariaren zuzendaritzapean, Thamesisera isuritako araztu gabeko hondakin-urek 1858ko udan sortu zuten *Kirats Handia* deiturikoari amaiera eman zioten—; eta bestetik, Bartzelonako 1859ko Cerdá Plana —zabalguneko alanak 45 gradura jarri zituzten, garai hartako gurdiak ez iraultzeko, eta azken finean, lesioak eta heriotzak saihesteko—.

Gaur egun, oraindik ere, hirigintzaren esparruan ingurumen, ekonomia eta gizarte arloetako irizpideak barneratzea foro askotan goraiatzen da, jardunbide egokien gidaliburuetan jasotzen da, eta abar, diziplina horren ikuspegi integratzaileago eta jasangarriago baten ondorioz. Horrek arlo horretan orain arte egingadako ibilbideari eta geratzen zaigun bideari buruz hausnartzera bultzatzen gaitu.

Udalsarea 21ek urte asko daramatza aipatutako aldagaia hiri-garapeneko benetako eragileak izatearen alde lan egiten, eta lan-koaderno honi lotutako Ekitaldea burutzearekin bat osasunaren aldagaia barneratzen lagundu nahi du.

HIRI PLANGINTZAREN ERAGINPEAN DAUDEN OSASUNAREN GIZARTE MUGATZAILEAK

“Auzoetako bizi-kalitatea esku-hartze publikoen, hau da, bai plaza eta parke bai aisialdi, kultur, merkataritza eta garraio publikoaren arloetako esku-hartzeen kopuruarekin eta kalitatearekin, zuzenki lotuta dago.”

RICHARD ROGERS

Jarraian, gida honetan kontuan hartu ditugun hiri-plangintzaren eraginpeko bederatzi osasun-mugatzaileetako bakoitzaren berezitasunak agertzen dira.

4.1. ELIKADURA

Elikadura osasungarria hauxe da: gizabanakoen energia eta elikadura beharrak estali, eta gaixotzeko arriskua murrizten duten babes-elementuak dituzenez, osasun ona eta bizi-kalitatea izatea ahalbidetzen duen elikadura.

Bizitzako etapen edo egoeren araberako energia-beharrak asetzeko nahikoa izateaz gain, osoa eta orekatua izan behar du; alegia, organismoak behar dituen elikagai guztiak eduki behar ditu, eta kopuruak ere egokia izan behar du. Beraz, elikagaien barietate handi bat barne hartu behar du.

Elikagaien barietate handi hori eskuratzeko ahalmena hainbat faktorek mugatzen dute, eta horien artean, ondokoak aipa daitezke: pertsonen gizarte- eta ekonomia-baldintzak eta auzoetan elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko txikizkako saltokiak izatea.

Era berean, dieta osatzen duten elikagaien aukeraketa indibiduala pertsonen elikadura-ezagutzen, faktore kultural eta sozialen edo elikadura industriak egiten duen produktu batzuen publizitate intentsiboaren mende dago.

Elikadura osasungarriko jarraibide zehatz gisa, dietan landare jatorriko barietate askotako elikagaiak presentzia handiagoa izatea gomendatzen da, eta koipeen, gatzaren eta azukrearen kontsumoa mugatzea.

ELIKADURAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Elikadura osasungarriaren bitartez, gehiegizko pisua eta loditasuna prebenitzen dira, eta gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia mota batzuk eta II. motako diabetesa izateko arriskua murrizten da.

Maila sozioekonomiko baxueneko taldeek —adibidez, diru-sarrera txikiko familiak, langabetuak, prestakuntza gutxiako pertsonak, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak, eta abar— elikadura ona izateko aukera gutxiago daukate, eta elikagai freskoen ordez janari prozesatu merkea jateko ohitura daukate.

Ondorioz, dietaren kalitateari dagokionez osasun arloko desberdintasunak areagotzea eragiten duen gizarte-gradiente bat dago (osasunaren gaineko onuren banaketa, gizarte eskalaren arabera).

ELIKADURA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK

- **Askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan eskuratu ahal izatea sustatzea.** Auzoetan, askotariko elikagaiak herritar talde guztientzat arrazoizkoak diren prezioetan saltzen dituzten txikizkako saltokiak izatea bultzatzea.
- **Nekazaritzara bideratutako lurra babestea edo leheneratzea.** Tokiko elikagai-ekoizpena babestuz gero, garraio-kostuak murriztu egiten dira, elikagaiak eduki nutrizionalari eusten diote, elikagai freskoak eskuragarriago daude, isurketek eta garraioarekin lotutako kontsumoek sortzen dituzten ingurumen-eraginak murrizten dira, tokian tokiko nekazaritzan lan egiteko aukera areagotzen da, eta naturaren eta ingurunearen baliabideak babesten eta mantentzen dira.
- **Tokiko elikagaien ekoizpena babestea.** Hiri-baratzeak eta lorategi jangarriak sortzen laguntzea.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Azalera handien ugaritzearen aurrean, tokiko denda txikiei laguntzen badiegu, elikagai barietate handia izatea eta herritar-talde guztiek elikadura osasungarria eduki ahal izatea bultzatuko dugu.
- Janari prozesatu merkeko saltokien ugaritasuna mugatzea; bereziki, eremu atzeratuenetan. Ikusi dugunez, ikastetxeetatik eta lantokietatik gertu mota horretako saltokiak nagusitzeak (vending-eko makinak barne) herritarren elikagai-aukeraketan eragin negatiboa izan du.
- Osasungarritzat jotzen ez diren elikagaien publizitateak jateko ohituretan, eta bereziki, haurren kasuan (gozokiak eta koipe, azukre edo gatz kopuru handia daukaten elikagaiak), daukan eragin negatiboari aurre egiteko ekimenak sustatzea.
- Nekazaritzarako lurren urbanizazioa saihesteko kontsumo lokalerako elikagaiak ekoizteko aukera areagotzen du.
- Elikagai barietate handia ekoiztera eta banatzera bideratutako ekimenak babestea –adibidez: tokiko ekoizleen azokak–, eta era berean, txikizkako saltokien osagarri izatea.

4.2. MUGIKORTASUNA

Mugikortasuna pertsonen eta komunitatearen osasunean eragiten duen faktore ekonomiko eta sozialak bat da. Munduan, trafiko-istripuekin, airearen kutsadurarekin eta ariketa fisikorik ez egitearekin zerikusia daukaten osasun-kostuak, urtero, ehunka mila milioi eurokoak dira. Adibidez, hirietako aire-kutsadurak (nagusiki garraioak eragindakoa) eta trafiko-istripuek urtean 2,5 milioi pertsonaren heriotza eragiten dute; batez ere, diru-sarrera txiki edo ertainak dauzkaten herrialdeetan. Ariketa fisikorik ez egiteak urtean 3,2 milioi heriotza eragiten dituela ere kalkulatu da.

Ohituraz, mugikortasunaren eta osasunaren arteko harremanari dagokionez, ibilgailuetako isurketetan eta isurketek klima-aldaketan daukaten eraginean jarri da arreta. Horren ondorioz, garraio-politikak erregaia hobetzera eta automobil eraginkorrak egitera bideratu dira.

Hala ere, osasun-onurak indartu ditzaketen beste estrategia batzuk ere badaude; izan ere, ibilgailu pribatua erabiltzeak loditasuna eragiten du, jarduera fisiko faltagatik, eta trafiko-istripuen ondoriozko heriotza eta ezgaitasunak ere eragiten ditu.

MUGIKORTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Mugitzeko modu aktiboak eta ibilgailu pribatuen ordez garraio kolektiboa erabiltzea sustatzen duen mugikortasun-ereduak osasunaren gaineko onurak indartzen ditu.

Mugikortasun aktiboak eta garraibide publikoak erabiltzeak lau modutara sustatzen dute osasuna: jarduera fisikoa egiten da, istripu hilgarrien tasa txikitzen da, gizarte-harremana handitzen da eta atmosferako kutsadura-indizea murrizten da.

Besteak beste, onura hauek sortzen ditu:

- Arnasketarekin lotutako gaixotasunak eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskuaren murrizketa, atmosferako kutsadura txikitzearen ondorioz.
- Estresaren eta garraibide motordunen zaratarekin lotutako bestelako gaixotasunen murrizketa.
- Trafiko-istripuen ondoriozko heriotzen eta ezgaitasunen murrizketa.
- Loditasuna prebenitzea eta askotariko gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia mota batzuk eta II. motako diabetesa izateko arriskua murriztea, jarduera fisikokoaren maila nabarmen handitzearen ondorioz.

Gure eguneroko bizitzan garraio-bideari dagokionez egiten ditugun hautuek eta garraio-bideak aukeratzeko ahalmenak eta erraztasunak gure osasunean eta ongizatean eragin argia izango dute.

Mugikortasunak osasun arloko gizarte-desberdintasunetan (osasunaren gaineko onuren banaketa, gizarte eskalaren arabera) eragin oso nabarmena dauka. Trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun- eta lesio-tasak aztertzen direnean, horixe ikusten da.

Haurren kasuan, bost urtetik gorakoen artean saihestu daitekeen heriotza-kausa nagusia errepedeko istripuek eragindako lesioak dira.

Ingalaterran egindako azterketa batek agerian utzi zenez, gizarte-desberdintasunak eztabaida ezinak dira. Herrialdeko gizarte-egoera ahulenean (% 10) bizi diren haurrek trafiko istripuak izateko probabilitatea gizarte-egoera sendoeneko eremuetan (% 10) bizi direnena halako 4 da.

OSASUNAREN GAINEKO ONURAK SUSTATZEKO MUGIKORTASUN ESTRATEGIAK

— Garraio publikoko zerbitzuak sustatzea.

Garraio-bide publikoak erabiliz gero, airearen kutsadura eta berotegi-efektuko gasak murrizten dira, eta erabiltzaileek, garraio-bide horiek hartzeko tokira joateko, jarduera fisikoa egitea bultzatzen du.

— Mugikortasun aktiboko moduak sustatzea (oinez eta bizikletaz ibiltzea). Mugikortasun aktiboak pertsonak jarduera fisiko gehiago egitea eta geldidun denbora gutxiago ematea eragiten du.

— Hiri-eremu arrazionalki trinkoak eta erabilera mistoko/askotarikoak diseinatzea sustatuz gero, mugikortasun aktiboa bultzatuko dugu, autoarekiko mendekotasuna murrizten duelako eta pertsona guztiek produktuak eta zerbitzuak errazago eskuratzea ahalbidetuko dugu.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

— Garraio-bide publikoen eraginkortasuna eta erosotasuna hobetuz, herritarrei auto pribatua erabiltzeko asmoa burutik ken dakieke. Horren barruan, ibilbide

azkarragoak, seguruagoak eta maiztasun handiagokoak sortzea sartzen da, baita txartelak mugitu gabe erosi ahal izateko erraztasunak ematea ere.

- Garraio-sistema publikoa egokia bada, jendea garraio-bideak erabiltzeko oinez edo bizikletaz distantzia handiagoa egiteko prest egongo da. Horrek pertsonen autoa erabiltzeko asmoa burutik ken diezaieke (pertsonak oinez egiteko prest dauden arrazoizko distantzia 300-500 metrokoa da).
- Garraio-sistema publikoa ona bada, funtsezko ondasun eta zerbitzuak eskuratzea — lana, osasun-zerbitzuak eta elikagaiak barne — erraztuko du. Gainera, komunitateko talde ahul batzuei (adineko pertsonak, adingabeak, ezgaituak, ibilgailurik gabeko pertsonak, eta abar) garraio-bideak erabiltzea erraztuko die.
- Etxebizitzaren dentsitatea handitzeak eta hiri-espazioari erabilera mistoa emateak mugikortasun aktiboa sustatzen dute.
- Bizitoki-eremuetan eta hiriguneetan abiadura murriztuz trafikoa lasaitzeak pertsonen aktiboki mugitzeko segurtasuna eta konfiantza handiagoa ematen die, eta haurrentzat eta hirugarren adinekoentzat funtsezkoa da.
- Oinez edo bizikletaz ibiltzen den jende kopurua handitzeak hiri-segurtasun handiagoa ematen du eta errepedean arreta handiagoa jartzea eragiten du. Ondorioz, gidariak tentu handiagotzat ibiltzen dira eremu horietan.
- Kaleak lauki gisa diseinatzeak oinez edo bizikletaz ibiltzea sustatu dezake; izan ere, konektibitate handiagoa sortzen, trafikoaren abiadura murrizten eta helmugun arteko distantziak txikitzen laguntzen du.
- Hiri-garapen berria dagoeneko existitzen den batean integratuz gero, hiri-sakabanaketa saihesten da eta azpiegiturak (esaterako, bideak eta mugikortasuna eta jarduera fisikoa bultzatzen duten bestelako instalazioak) hobeto erabiltzea eragiten du.
- Dentsitate handiko eremuetan, eraikinen erabilera mistoek hiri-espazioko erabilera dibertsifikatzen lagundu dezakete. Horrek txikizkako saltokiak izateko aukera eta hiriguneak biziak izateko aukera areagotzen du.

4.3. OINARRIZKO EKIPAMENDUEN SAREA

Ekipamendu kontzeptuan, ondasunak eta zerbitzuak emateko hainbat jarduera sartzen dira; heziketa, osasun, segurtasun, gizarte-zerbitzu, kirol edo elkarre-jardueren arlokoak, hain zuzen. Halaber, komunitateek ondo funtzionatzeko funtsezkoak diren oinarrizko zerbitzuak sartzen dira, adibidez: dendak (okindegiak, arrandegiak, harategiak, eta abar), botikak, banketxeetako bulegoak eta beste zerbitzu batzuk.

Ekipamendu horien berezko ezaugarrietako bat hau da: komunitateko pertsonen dagokien zerbitzua emateko euskarri fisiko baten (instalazio edo eraikin bat) beharra.

Oinarrizko ekipamenduen sare egokia izateak zera lortzen du:

- Heziketa, osasun, gizarte-zerbitzu, kirol eta kultur beharrak asetzea.
- Pertsonen arteko gizarte-elkarrekintza eta harreman behar oinarrizko erantzuna ematea.
- Gizarte-arauak eta -sareak eratzea.
- Pertsonen artean elkarrekiko konfiantzazko harremanak sortzea eta horiei eustea.
- Komunitate bateko taldeen artean gizarte-lankidetzaz garatzea, lankidetzaz horretatik sortutako aukerak indibidualki baliatzeko moduan.

OINARRIZKO EKIPAMENDUEN SAREAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Ekipamenduen sare eskuragarri, merke, kalitatezko ea komunitate bateko askotariko giza-taldeen beharretara egokitua izateak komunitate osasungarriak eta jasangarriak garatzea bultzatzen du.

Komunikazioak eta gizarte-harremanek pertsonen osasun mentala eta autoestimua hobetzen dute, eta beraz, depresioa eta antsietatea nozitzeko arriskua murrizten.

Sare-sozial onak eta gizarte-euskarri ona edukitzeak ondorio onuragarriak dakartza, adibidez: hiltzeko arriskua murriztea, gaixotuz gero emaitza hobea izatea, eta osasun mental hobea izatea.

Frogatuta dago maiztasun txikiko gizarte-harremanak, gizarte-euskarri okerragoa, bizilagunenganako konfiantza txikiagoa eta tokiko jardueretan inplikazio

txikiagoa daukaten pertsonen osasun okerragoa daukatela.

OINARRIZKO EKIPAMENDUEN SARE ON BAT EDUKITZEKO ESTRATEGIAK

- **Hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin, eta/edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduak sortzea.** Aurrea hartzea funtsezkoa da. Oinarrizko ekipamenduen sarearen plangintzan, komunitatearen orainaldiko eta etorkizuneko beharrak identifikatu behar dira, eta herritar-talde guztiei zerbitzuak eskuratzeko aukeraberdintasuna bermatu. Gainera, plangintza egokia bada, zerbitzuak etxebizitzak okupatzen hasten diren unetik ematea aurreikusiko du.
- **Oinarrizko ekipamenduen sare koordinatua eta eraginkorra izatea bultzatzea.** Sareak hiri-egituraren fisikoki integratuta egon behar du. Gainera, zerbitzu osagarriak —adibidez, gizarte- eta osasun-zerbitzuak— ematen dituzten oinarrizko ekipamenduak bata bestetik gertu egotea komeni da.
- **Kide izatearen sentimendua sortzea.** Herritarrek eraikin komunitarioen garapen eta diseinuan parte hartzea bultzatuz gero, komunitateko kide izatearen sentimendua sortzen da, eta era berean, propiotzat jotzen dena defendatzea bultzatzen da. Horrela, komunitateak seguruagoak izatea lortzen da.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Oinarrizko ekipamenduen sare ahalik eta askotarikoena ezartzea, zerbitzu, jarduera eta programa sorta zabalekoa.
- Baliabideen erabilera eraginkorra maximizatzea, adibidez: eraikin berean oinarrizko ekipamendu bat baino gehiago jartzea, instalazioak partekatzea edo ordutegiak osatzea.
- Instalazioak komunitatearen aldaketetara eta behar berrietara egokitu ahal izateko moduan diseinatzea.
- Herritar taldeek zerbitzuak eskuratzeko aukera berdina edukitzea sustatzea.
- Ekipamenduen erabilgarritasuna erraztea, garraio-bide publikoaren bitartez.
- Dendak, ikastetxeak eta bestelako ekipamenduak bateratzea, jarduera-guneak eta pertsonen metatze eremuak sortzeko.

4.4. ENPLEGUA

Lanak funtsezko funtzioa betetzen du gure gizartean: diru-sarrerak, izen ona eta baliozkotasun sentimendua lortzeko bidea ematen du, eta komunitatearen bizitzan kide oso gisa parte hartzeko eta integratzeko modua eskaintzen du.

Langabeziak pertsonak partaidetza horretatik eta lanak ematen dituen onuretatik kanpo uzten ditu.

Dena den, ezegonkorrak edo gustukoak ez diren lan asko langabezia bezain kaltegarriak izan daitezke. Lana edukitzeak ez du beti osasun fisikoa eta mentala babes-tea ekartzen, lanaren kalitatea ere garrantzitsua baita.

Lanarekin zerikusia daukaten hainbat alderdik osasunean ondorio positiboak edo negatiboak dauzkate, esaterako: arrisku fisiko, kimiko edo biologikoen eraginpean egoteak, estresak, norbere lana kontrolatzeko ahalmenak, konpetentzia berriak garatzeko eta maila handitzeko aukerak, soldatak edo etxetik lanera joaten inbertitutako denborak.

ENPLEGUAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Lana kalitatezkoa izateak osasun fisikoa eta mentala hobetzen ditu: hilkortasun-tasa jaisten du, zioa edozein dela ere, autoestimua hobetzen du eta depresio- eta antsietate-arriskua murrizten du.

Lanak sortutako estresak gaixotasun koronarioak izateko arriskua % 50 handitzen duen frogak daude. Era berean, exigentzia maila handiko eta ahaleginaren eta ordainaren arteko desoreka handiko lanek osasun-arazoekin lotutako arriskuak sortzen dituzte (depresioa, antsietatea eta abar).

Lanaren eta bizitza pribatuaren arteko desorekak, hau da, lanean denbora luzeagoa emateak (joan-etorriak barne hartuta) osasunean eta ongizatean eragin negatiboak izan ditzake. Lanera joateko 30 minutu baino gehiago behar izateak osasunean eragin positiboa daukaten beste jarduera batzuk —adibidez, kirola egitea edo gizarte-harremanak edukitzea— egiteko denbora kendu dezake.

Gure gizartean, gizarte-eskalan behera egiten dugun neurrian, langabezia-arriskua handitu egiten da, eta dagoeneko lan-merkatuan egoera ahulean edo kalteberan dauden taldeen artean are handiagoa da. Lana edukitzeak gizarte-bazterketa arriskua, eta ondorioz, gizarte babesetik kanpo geratzekoa, murrizten du. Beraz, osasun arloko desberdintasunak (osasunaren gaineko onuren banaketa, gizarte eskalaren arabera) murrizten laguntzen du.

KALITATEZKO LANA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

- **Tokiko lan-aukerak sustatzea.** Hiri-espazioa tokian toki lan-aukerak sortzen laguntzeko moduan planifikatzea. Tokiko enpleguak joan-etorrirako erabiltzen den denborari eragiten dio, eta horren ondorioz, familia-harremanetarako edo bestelako jarduerak egiteko denbora libreari; azken finean, lana/bizitza orekari.
- **Askotariko lanak lortzeko aukerak sustatzea.** Lurzoruari erabilera mistoa emanez, hiri-garapen trinkoak bultzatzea. Hala, jende-dentsitatea handiagoa, etxebizitza gehiago eta askotariko lan aukera gehiago daude.
- **Tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza bultzatzea.** Pertsonei, batez ere arrisku handiengan daudenei, kalitatezko prestakuntza eta hezkuntza jasotzeko aukera gehiago ematea.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Lantokietara iristeko, garraio-bide publikoak eta mugikortasun aktiborako bideak erabiltzeko aukera sustatzea.
- Lurzoruari erabilera mistoa emateak, eta hala, aisialdirako, gizarte-harremanetarako eta jarduera ekonomikoetarako espazio publikoak edukitzeak tokiko enplegu aukerak ugartzea dakar.

4.5. JARDUERA FISIKOA

Jarduera fisikoa hau da: «aisialdian edo eguneroko bizitzan egiten diren eta pertsona batek geldi dagoenean baino energia gehiago gastatzea eragiten duten mugimendu-jardueren multzoa». Ariketa fisikoak, berriz, hau da: «sasoiaren edo egoera fisikoaren elementu bat edo gehiago lortzea, eustea edo hobetzea helburu izanik, planeatu, egituratu eta behin baino gehiagotan egiten den jarduera fisikoa».

Jarduera fisikoa egitea hainbat faktoreren mende dago: testuinguru sozial eta ekonomikoaren, norbanakoaren zaletasunen eta bizilekuko giro fisikoaren mende (naturala eta hirikoa).

Pertsonek eguneroko bizitzako lau esparru nagusitan fisikoki aktibo egoteko aukera daukate: lanean (berezi,

eskuzko lana egitea eskatzen badu), mugikortasunean (adibidez, lanera oinez edo bizikletaz joatea), etxean (adibidez, etxeko lanez, baratzeaz edo lorategiaz arduratzea) eta aisialdiko denboran (adibidez, kirol edo aisialdiko ekintzetan parte hartzea). Hala ere, gaur egungo munduak eta bizitza modernoko aurrerapenek sedentarismoa bultzatzen dute.

18 eta 65 urte arteko pertsona osasuntsuen kasuan, OMEk zera egitea gomendatzen du:

- Astean 5 aldiz, gutxienez 30 minutuko jarduera fisikoa, intentsitate ertainekoa, edo,
- Astean 3 aldiz, gutxienez 20 minutuko jarduera fisiko kementsua.

JARDUERA FISIKOAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Bizimodu fisikoki aktiboa izateak osasunaren gaineko onura asko dakartza, bai fisikoak bai psikologikoak. Jarduera fisikoak, bizitza-urteak ugaritu ez ezik, urte horiei bizi-kalitatea eransten die.

Egunean ordu erdiz bizkor ibiltzeak edo adinera egokitutako beste edozein kirol egiteak batez besteko bizi-itxaropena hiruzpalau urte luzatzen du, eta zazpi urtera arte, pertsona inaktiboenen bizi-itxaropenarekin alderatuz gero.

Jarduera fisikorik ez egitea, mundu osoan, hiltzeko arriskua eragiten duten faktore nagusien artean laugarrena da (mundu osoko heriotzen % 6). Hipertentsioak (% 13), tabako-kontsumoak (% 9) eta odolean glukosa gehiegi edukitzeak (% 6) bakarrik gainditzen dute.

Jarduera fisikoak osasunean eragiten dituen onura nagusien artean, ondokoak daude:

- Gehiegizko pisua eta loditasuna prebenitzea.
- Bihotz-hodietako gaixotasunak izateko arriskua gutxitzea.
- Patologia kronikoak prebenitzea, adibidez: II. motako diabetesa eta minbizia mota batzuk (kolonekoa eta bularrekoa, esaterako).
- Alzheimer eritasuna prebenitzea.
- Depresioan eragin onuragarria.
- Oreka eta mugikortasuna hobetzea, osteoporosia, artrosia eta erorikoen ondoriozko lesioak prebenitzea.
- Taldean, komunikazioa eta gizarte-harremanak sustatzea.

Gaur egun, jarduera gabezia handiena emakumeen, adineko pertsonen, maila sozioekonomiko baxuko taldeen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen artean ikusten da.

JARDUERA FISIKOA EGITEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

- **Oinez eta bizikletaz ibiltzeko edo modu aktiboan mugitzeko bestelako aukerak sustatzea.** Jarduera fisikoa eguneroko bizitzan ohitura gisa txertatuz gero, eguneroko jarduera fisikoko gutxieneko eskakizunak errazago beteko ditugu. Helburua hauxe da: bizimodu aktiboa izateko aukerak eman eta oztopoak deuseztatzen dituen ingurune baten eraikuntza diseinatzea, ingurumen arloko faktoreak kontuan hartuta, adibidez: klimatologia edo topografia. Edozein pertsonarentzat aukera errazena osasunerako mesedegarria den jokabide bat aukeratzea bada, arrakasta lortuko dugu.
- **Aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzea sustatzea.** Parkeak eta espazio publiko irekiak hiri-inguruneetan bizi diren pertsonentzat ihesbide bat dira. Horrez gain, espazio horiek seguruak, egokiak eta erakargarriak baldin badira, herritarrei jarduera fisiko gehiago egiten laguntzen diete.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Helmugan artean <500 metroko distantzia egotea edo oinez 5-10 minutukoa, normalean, oinez ibiltzeko onargarritzat jotzen da.
- Kaleak lauki gisa diseinatzeak oinez edo bizikletaz ibiltzea sustatzen du; izan ere, konektibitate handiagoa sortzen, trafikoaren abiadura murrizten eta helmugan arteko distantziak txikitzen laguntzen du.
- Etxebizitzaren dentsitatea handitzeak eta hiri-espazioari erabilera mistoa emateak garraio aktiboa sustatzen dute.
- Hiri-garapen berria dagoeneko existitzen den batean integratuz gero, hiri-sakabanaketa saihesten da eta azpiegiturak (oinez edo bizikletaz ibiltzea eta jarduera fisikoa egitea bultzatzen duten bideak eta beste-lako instalazioak) hobeto erabiltzea eragiten du.
- Oinezkoek eta txirrindulariek bidegurutzetan itxaron beharreko denbora murrizteak mugikortasun aktiboa sustatzen du. Oinezkoek eta txirrindulariek denbora horiek oso luzeak iruditzen bazaizkie, seinaleei errazago egiten diete ezikusiarrena eta istripu-arriskua handitu egiten da.

- Garraio-sistema publikoa egokia eta eroso bada, jendea oinez edo bizikletaz distantzia handiagoa egiteko prest egoten da, eta horrek ere bizimodu aktiboa sustatzen du.
- Parkeak eta espazio publiko irekiak seguruak, egokiak eta erakargarriak baldin badira, herritarrek jarduera fisiko gehiago egiten dute.
- Espazio publiko irekien plangintza egiterakoan erabilerak eta erabiltzaileak askotarikoak izatea kontuan hartuz gero, herritar-talde guztiek erabiltzeko probabilitatea handitzen da eta horrek osasun arloko ezberdintasunak murrizten laguntzen du.
- Oinezko eta txirrindularientzako ibilbideak, jolasteko kantxak eta/edo pistak, saskiak, iturriak, eta abar dituzten espazio publiko irekiak diseinatu eta planifikatuz gero, kirol arautuak ez bestelako jarduerak egin ahal izateko, herritarren jarduera fisikoaren maila handitzen da.

4.6. ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

Espazio publiko irekietan udalerrri batean hiri-eremuak elkarlotu eta hiria egituratzen duten espazioen osotasuna barne hartzen dute. Kaleak, plazak, berdeguneak (adibidez, parkeak eta lorategiak), saltoki- eta merkataritza-eremuak, jolas- eta aisialdi-eremuak, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak eta naturguneak (ibaiak, hondartzak, mendiak eta abar) barne hartzen dituzte.

Espazio publikoa bat-bateko, kontrolik gabeko eta berriazko antolaketarik gabeko topaketen, manifestazioen eta sorkuntza-ekitaldien eremua da. Horiek guztiak nortasun handirik eta helburu zehatzik gabekoak izaten dira, baina beharrezkoak, gizarte irekietan nahi dutena adierazi eta libreki bizi daitezten. Gainera, pertsonak fisikoki aktiboak izateko aukerak ematen dituzten lekuak sortzen dituzte.

Espazio publikoa bat-bateko, kontrolik gabeko eta berriazko antolaketarik gabeko topaketen, manifestazioen eta sorkuntza-ekitaldien eremua da. Horiek guztiak nortasun handirik eta helburu zehatzik gabekoak izaten dira, baina beharrezkoak, gizarte irekietan nahi dutena adierazi eta libreki bizi daitezten. Gainera, pertsonak fisikoki aktiboak izateko aukerak ematen dituzten lekuak sortzen dituzte.

Espazio publikoa herritar guztientzat irekia da, genero, adin edo baldintza sozioekonomikoen arabera bereizketarik egin gabe, eta pertsona guztiek berdintasunez erabili ahal izatea bermatu behar da.

ESPAZIO PUBLIKO IREKIEN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Oro har, espazio publiko irekietan gizartearen kohesioa laguntzen dute eta osasun fisiko eta mentala sustatzen dituzte.

Komunikazioa eta gizarte-harremanak bultzatzen dituzte, eta horrek, pertsonen autoestimua hobetzeaz gain, gizartearen bakartuta egoteko arriskua eta depresioa eta antsietatea izateko arriskua murrizten ditu. Horrez gain, jarduera fisiko egitea sustatzen dute.

Naturarekin harremanetan egoteak estresa eta buruko nekea arintzen laguntzen du, baita gaixotasunak gainditzeko ere. Haurrei fisikoki eta sozialki garatzen laguntzen diete.

KALITATEZKO ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK ESKAINTZEKO ESTRATEGIAK

- **Berdeguneak eta/edo inguru naturalak erabiltzeko aukera sustatzea.** Berdeguneak eta/edo inguru naturalak edukitzeak jarduera fisiko egitea bultzatzen du, baita gizarte-elkarrekintza eta -kohesioa ere.
- **Espazio ireki erabilgarriak, erakargarriak eta seguruak eskaintzea** espazio horietan erabiltzea eta horietaz gozatzea sustatzen du, eta herritarrei ongi-izatea ematen die.
- **Espazio publikokoa izatearen sentimendua sortzea** propiotzat jotzen dena defendatzea sustatzen du. Horrela, komunitateak seguruagoak izatea lortzen da.
- **Garrantzi natural, historiko eta/edo kultureko lekuak babestea eta/edo hobetzea.**

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Plangintzan bizilekuek gertu berdeguneak eta jolas-eremuak izatea aurreikustea.
- Berdeguneak eta/edo natur eremuak mugikortasun aktiborako seguruak diren sareekin eta/edo garraio publikoko sareekin lotzea.
- Askotariko erabiltzaileei zuzendutako funtzio anitzeko espazio publikoak sortzea dibertsitate soziala eta belaunaldi artekoa sustatzen ditu.
- Erosotasunez, seguru eta autonomoki, oztoporik gabe, erabili daitezkeen espazio publikoak sortuz gero, gizarte-kolektibo guztiek berdintasunez gozatzea bermatzen da.

- Iturritz, altzariz, haur-jolasez, itzalez... hornitutako espazio publikoak diseinatzeak, eta lesio edo istripuen aurrean seguruak izateak, erabilera sustatzen du.
- Espazio publikoak hobetzeko, partaidetza-kultura eta elkarrizketa sustatzen duten ekintzak egiten badi-tugu, bertakoa izatearen sentimendua sorrarazi eta gizarte-kohesioa sustatuko dugu.

4.7. ETXEBIZITZA

Etxebizitzak pertsonen ongizate eta osasunean eragin handia dauka, baina lan-aukerei, gizarte-konektibitateari eta ingurumen-jasangarritasunari ere nabarmen eragiten die.

Etxebizitzak osasungarritzat jotzeko, oinarritzko baldintza edo ezaugarri batzuk bete behar dituzte:

- Arkitekturaren ikuspegitik, pertsonak kanpoko eta barruko erasoetatik babestu behar dituzte; tamainak pilaketa saihestu behar du; ur, argindar eta saneamenduko instalazioak eduki behar dituzte; eta era berean, behar adinako isolamendua eta aireztapena izan behar dute.
- Komunikazioa, elkarlana, kohesioa eta jokabide osasungarriak sustatzen dituen inguru batean kokatuta egon behar dute, eta oinarritzko zerbitzuak (adibidez, ikastetxeak, osasun-zerbitzuak, saltokiak, eta abar) eskuratzeko aukera eman behar dute.
- Mota, forma eta neurriei dagokienez, herritar-talde bakoitzaren (askotariko familia-ereduak, adineko pertsonak, desgaituak, eta abar) beharrei erantzun ahal izateko behar besteko dibertsitatea izan behar dute.
- Ikuspuntu ekonomikotik, herritar maila bakoitzarentzat arazoizko prezioa eduki behar dute.

Azkenik, etxebizitza osasungarri bat eskuratu ahal izateak bertan bizi diren gizabanakoen osasunean eragin positiboa dauka.

ETXEBIZITZAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Etxebizitza-baldintzek osasunean eragin esanguratsua daukate:

- Hezetasunak izatea hainbat gaixotasunekin lotuta dago, adibidez: asma, alergia eta arnasketa-infekzioekin.

- Barruko tenperatura txikia izatea osasun egoera txarrarekin, gaixotasun kardiobaskularrekin eta neguan hilkortasun-tasa handitzearekin lotuta dago.
- Jenda-pilaketa arnasketa-infekzioak transmititzearekin eta estres kronikoarekin lotuta dago.
- Argi naturala ez edukitzeak, ikuspegi txarrak, zarak eragindako enbarazuak eta intimitaterako leku faltak depresioa eta antsietatea izateko arriskua handitzen dute.
- Eraikuntzako edo isolamenduko elementuen eta/edo berokuntzako sistemen eraginez barruko airean substantzia kimikoak izatea arnasketa-gaitzak izateko eta hiltzeko arriskua handitzearekin lotuta dago.
- Segurtasun falta eragiten duten inguruetan kokatuta egoteak, eta beraz, gizarte-elkarrekintza eta -kohesioa ez sustatzeak osasun fisiko eta mentalean eragin negatiboa dauka.

Etxea edukitzeak gizarte-bazterketa arriskua murrizten du, eta ondorioz, osasun arloko gizarte-desberdintasunak (osasunaren gaineko onuren banaketa, gizarte eskalaren arabera) murrizten laguntzen du.

OSASUNAREN GAINKO ONURAK INDARTZEN DITUZTEN ETXEBIZITZA ARLOKO ESTRATEGIAK

- **Etxebizitza osasungarriak sustatzea.** Etxebizitza osasungarria eta eraginkorra edukitzeak bertan bizi direnen osasunean eta ongizatean ondorio positiboak dauzka, baita ingurumen-jasangarritasunean ere.
- **Etxebizitzaren dibertsitatea sustatzen du.** Etxebizitzaren dibertsitateak komunitate kohesionatuagoa eta dibertsifikatuagoa izaten laguntzen du.
- **Etxebizitzek arazoizko prezioa edukitzea sustatzea.** Etxebizitzek arazoizko prezioa edukitzea sustatzeak, bereziki, gizarte-egoera ahulenean dauden taldeentzat, osasun arloko desberdintasunak murrizten ditu.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Energia-eraginkortasunaren arloan kalitatezko estandarrak betetzen dituzten etxebizitzek kostuak murrizten laguntzen dute, klima-aldaketa arintzen eta jasangarritasuna hobetzen.

- Isolamendu termiko egokia —barruan tenperatura egokia izatea ahalbidetzen du—, aireztapen ona, behar adina argi eta hondakin toxikorik sortzen ez duten materialak dauzkaten etxebizitzak bertan bizi direnen ongizaterako eta osasun fisiko eta mentale-rako mesedegarriak dira.
- Hiri-egituraren etxebizitza-sustapen bat txertatzeak harremana, elkartrukea eta komunikazioa errazten ditu.
- Bizitokiak egiteko lurzorua erabilera-araudia mistoa eta malgua izateak herritar guztiek oinarritzko zerbitzuak eskuratzea sustatzen du.
- Eraikitako espazioaren eta espazio librearen arteko orekak, espazio publiko integratu, atsegin, askotariko, ireki eta natur elementuak barne hartzen dituztenen (adibidez, landaredia eta zuhaiztiak) sare bat izateak, mugikortasun aktiboa eta jokabide osungarriak sustatzen ditu, eta gainera, gizarte-komunikazioa eta -kohesioa bultzatzen ditu.
- Etxebizitzak mota askotakoak izateak (azalera eta ezaugarriei dagokienez), jabetza-erregimen desberdinetan (erosketa, alokairua), baliabide gutxien dituzten herritarrentzat arrazoizko prezioan, bakoitzaren beharretara egokitzeko modukoak, eta eremu berean egoteak gizarte-dibertsitate handiagoa sustatzen du eta komunitate orekatuago eta kohesionatuagoa izatea. Beraz, ghettoak sortzea saihesten du eta osasun arloko desberdintasunak murrizten ditu.

4.8. KOMUNITATEAREN SEGURTASUNA ETA BABESA

Hiri-segurtasun(ez)ak, zentzu hertsian, bi dimentsio dauzka: objektiboa eta subjektiboa. Dimentsio objektiboa zera da: pertsona bat edozein motatako delituen biktima izateko probabilitate estatistikoa, bereziki, bere kontrako, senideen kontrako edo bere ondasunen kontrako eraso baten biktima izatekoa. Dimentsio subjektiboa, berriz: biktimak delinkuentziari dion beldurra.

Hau da, gauza bat da pertsonak zein egoera objektibotan bizi diren, eta bestea, herritarren zati batek egoera hori nola hautematen edo irudikatzen duen.

Hiri-diseinuak, bere horretan, ezin ditu egoera gatazkatsuak edo erasoak saihestu, baina pertsonak mugitu ahal izateko eta eguneroko jarduerak egiteko espazio seguruak sortzeko ahalmena badu. Espazio biziak eta jendearen jardueraren beraren bidez zainduak sortzea da kontua.

SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Segurtasun eza hautemateak osasun fisikoari eta mentalari eragiten dio, bai hautematen duten pertsonenari bai beren ardurapean daudenentzari. Horrek jokabide-ereduak aldatzen ditu, eta bakartzea, gizarte-harremarik eza eta eguneroko jarduera fisikoa murriztea eragiten ditu.

Segurtasun ezak eragiten duen beldurra estresa sortzen du, norbere buruarenganako konfiantza murrizten du, ahultasun-sentsazioa handitzen du eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua handitzen du.

Auzoetako gizalegearen kontrako jokabideak edo baldintza txarrak (berdegune falta edo gaizki mantenduak, kale zikinak, zaratak, hondatutako elementuak, eta abar) bertan bizi diren herritarrek segurtasun eza handiagoa eta osasun txarragoa hautematearekin lotuta daude.

KOMUNITATEA SEGURU ETA BABESTUTA EGOTEKO ESTRATEGIAK

Komunitatea espazio publikoetan seguru eta babestuta egotea eragingo duen hiri-ingurune fisiko bat sortzea. Beren diseinuari esker ikusteko eta ikusiak izateko aukera ematen duten espazio publikoek pertsonak mugitzea, eguneroko jarduerak egitea eta haien artean harremanak izatea sustatzen dute.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Ezkutatze tokirik eta oztopo arkitektonikorik gabeko eta ikusgaitasun oneko espazioak diseinatu, erraz eta seguru mugitzea bultzatzen da.
- Espazioek argiztapen egokia izateak eta hiriko elementuak ondo mantenduta egoteak segurtasun pertzepzioa areagotzen dute.
- Eraikinetako, saltokietako eta zerbitzuetako beheko solairuetan, askotariko erabilerak ezartzeak kaleetan jarduera gehiago izatea eragiten du eta naturalki ondo babestuta egotea.
- Herritarrek eta tokiko eragileek espazio publikoaren plangintzan eta diseinuan parte hartzeko mekanismoak garatuz gero, gizarte-kohesioa areagotzen da, baita bertakoa izatearen sentimendua ere. Beraz, espazioak erabili eta zaintzea eta delinkuentzia murriztea sustatzen da.

4.9. INGURUMENA

“Gizakien osasuna lurraren osasunaren isla da.”

HERAKLITO

Gure osasuna ingurune naturalaren, sozialaren, kulturalaren eta eraikiaren kalitatearen mende dago. Airearen kalitateak, uraren kalitateak eta kontsumo jasangarriak; zaratzen ondoriozko enbarazuek, usainek edo argiztapenak; naturarekin lotutako arriskuek edo antropogenikoez eta klima-aldaketak osasunean eragiten dute.

Aire garbia edukitzea ingurumen-politiken eta garapen jasangarriko estrategien helburu nagusietako bat da. Airearen kutsadura-iturrietako batzuk trafikoa eta garraiobideak, industriako isurketak, berogailuak, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta eraikuntza dira.

Ura baliabide natural urria da, bizitzeko eta ekonomiarako ezinbestekoa eta ordezkazina. Erraz kaltetu daitekeen baliabide bat da, mugatua eta ordezkatzeko garestia. Beraz, babestea funtsezkoa da. Istripuzko edo nahita egindako hiriko edo industriako isurketek, perkolasioak eta kutsatzaileen lixibazioak gainazaleko eta lurpeko uren kutsadura eragiten dute.

Industria-jarduerak, garraioa, eraikuntza eta jolas-jarduerak edo aisialdikoak kutsadura akustikoaren eta usainen iturburuak dira.

Argiztapen artifizialak oinezkoentzat eta ibilgailueta-rako ingurune erakargarriagoa eta seguruagoa izaten laguntzen du. Hala ere, toki txarrean kokatuta, intentsitate desegokikoa izatea edo beharrezkoa ez den ordutegian piztuta egotearen ondorioz, pertsonengan edo ekosistemetan ondorio negatiboak eragiten baditu, argi-kutsadura dagoela esaten dugu.

Halaber, pertsonak beste arrisku natural edo antropogeniko batzuen mende daude. Arrisku horien artean, uholdeak, basoko suteak, enbatak edo erradiazio ultramore edo elektromagnetikoaren edo lurzoru kutsatuaren eraginpean egotea daude.

Bestetik, klima-aldaketa arrisku globala da, eta gure latitudean, muturreko fenomeno klimatikoaren maiztasuna handitzea eragiten ari da (bero-boladak, prezipitazio ugariak eta lehorte-denboraldiak).

INGURUMENAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO HARREMANA

Gaur egun Europako hiri gehienetan topatzen den mailako aire-kutsadurak gehiegizko heriotza kopurua eta kostu

ekonomiko handia sortzen ditu. Kutsadura horrek asma-atakeak, bronkitisa, biriketako minbizia eta biriketako eta bihotzeko bestelako gaitzak hartzea bultzatzen du.

Intentsitate handiko trafikoko errepideetatik gertu bizitza haurren asma kasuen % 15 eragiten ditu, eta 65 urteko helduen gaixotasun kronikoko kasuen antzeko ehunekoa (gaixotasun koronarioak eta gaixotasun buxatzaile kronikoak).

Edateko eta aisialdirako uraren kutsadura, oro har, mikroorganismoek eragindako gaixotasunak agertzearekin lotuta dago. Hala ere, desio ez diren beste substantzia kimiko batzuen presentzia (beruna, trihalometanoak) edo horien gehiegizko kontzentrazioa ere osasun-arazoaren iturburua da (adimen-atzerapena, maskuriko minbizia).

Zaratak elkarrizketak oztokatzen ditu, laneko produktibitatea murrizten du eta ikasterakoan kontzentrazioa galarazten du, antsietatea sortzen du, loaren kalitatea okertzen du, entzumen-galera sortzen du, bihotzekoa izateko arriskua handitzen du eta gizarte-harremanei eragiten die.

Usainen kasu zehatzean, ondorio kaltegarri somatikoak deskribatu dira, adibidez: goragalea, okada edo buruko mina.

Gauean argipean egoteak erritmo zirkadianoa eta melatoninaren ekoizpena aldatzen ditu, eta horregatik, loa eta aldartea aldatzen ditu.

Arrisku natural edo antropogenikoei aurre egiteko esku-hartzeen plangintza egiteak hiltzeko arriskua murrizten du eta bestelako ondorio negatibo batzuk minimizatzen ditu, adibidez: estresa eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko arriskua.

Klima-aldaketak, gure latitudean, negu epelagoak izatea eragingo duela aurreikusten den arren, muturreko fenomeno klimatikoaren maiztasuna handitzeak hilkortasuna handituko duela ere aurreikusten da.

INGURUMEN ONA EDUKITZEKO ESTRATEGIAK

- **Airearen kalitatea hobetzea.** Immisio mailak ezagutzeak, igorpen-iturri nagusiekin lotzeak eta murrizteko estrategiak ezartzeak herritarren osasuna hobetzen laguntzen du.
- **Uraren kalitatea hobetzea eta/edo eskaera txikitzea.** Uraren ziklo osoa babesteko edo eskaera txikitzeak pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetzen du du, baita ingurumenaren kalitatea hobetzea ere. Gainera, etorkizuneko belaunaldien garapena bermatuko du.

— **Zaratekin, usainekin eta/edo argiztapenarekin lotutako enbarazuak ahalik eta gehien murriztea.**

Neurri prebentiboak eta/edo zuzentzaileak ezartzeak hiri-lurzorua elkarren artean bateragarriak diren jardueretarako erabiltzea ahalbidetzen du (atseden hartzea, bizitzea, merkataritza, mugikortasuna, aisialdia eta abar) eta osasun fisikoa eta mentala hobetzen ditu.

— **Arrisku natural edo antropogenikoen ondoriozko kalte posibleak murriztea.**

Askotariko arrisku natural edo antropogenikoak identifikatzeak eta ahalik eta gehien gutxitzeko planak egiteak hilkortasuna eta arriskuekin lotutako gaixotasunak murrizten ditu.

— **Klima-aldaketa arintzen laguntzea.**

Klima-aldaketara egokitzeak eta aldaketa arintzen laguntzeko neurriak ezartzeak osasunaren eta ingurumenaren gaineko kalte posibleak murrizten, edo gutxienez atzeratzen, laguntzen du.

EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

- Lurzorua erabilerak bizilekueetatik lantoki, ekipamendu, espazio publiko ireki eta garraiobide publikoko sistemarako distantziak kalkulatuaz planifikatzea.
- Etxebizitza-dentsitate txikiko eremuen dentsitatea handitzeak, mugitzeko modu aktiboak sustatzeak, eta garraio publikoko zerbitzuak ezartzeak eta bultzatzeak airearen kalitatea hobetzen laguntzen dute.

— Ikastetxeetatik, aisialdiko espazioetatik, espazio publiko irekietatik edo udalerrietako erdiguneetatik gertu ibilgailuen ibilbidea murriztea eta/edo mugatzeak eremu horietako airearen kalitatea hobetzen du, zarata-maila txikitzen du eta segurtasuna areagotzen du.

— Tokiko politiketan hornidurarekin, saneamenduarekin, uholdeak gertatzeko arriskuarekin eta ingurune hidrikoa babestearekin lotutako auziak barneratzea, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

— Ura kudeatzeko politika integralak garatzea, baliabide hori babesteko, eta bizi-kalitatea murriztu gabe, ur aurrezpena hobesteko.

— Baliabide hidrikoa babesten laguntzea.

— Udalerriko zaraten mapa edukitzea, zortasun akustikoko eremuak mugatzea eta ekintza-planak gauzatea, giroko zarata murrizteko.

— Zarataren eraginpean dauden eremuetan kokatutako etxebizitzetara isolamendu egokia emateak bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

— Luminariak ondo banatuz espazioaren argiztapen egokia sustatzeak hiri-paisaiari hobekuntza esanguratsuak eragingo dizkio, energia aurrezteko ekarriko du eta hiri-segurtasuna areagotuko du.

— Udalerriko planetan klima-aldaketara egokitzeak eta aldaketa hori arintzeko irizpideak aplikatzea.

TOKIKO HIRIGINTZAKO EKIMENEK OSASUNEAN DAUKATEN ERAGINAREN AZTERKETA

Gidaren lehenengo zatian, osasunaren inguruko oinarriko kontzeptuak, gizarte-mugatzailleak eta osasun arloko desberdintasunak lantzen dira, baita hiri-garapen jasangarria ere, garpen hori herritarren osasuna hobetzeko alternatiba bideragarritzat hartuta. Gainera, metodoan aurreikusitako osasunaren mugatzaile bakoitza deskribatzen da, horren aldeko udal estrategiak eta jardunbide egokiak barne hartuta.

Bigarren zati honetan, alde batetik, tokiko hirigintza-ekimenek osasunean daukaten eragina sistematikoki aztertzeo prozedura agertzen da, eta bestetik, azterketa erraz eta ordenaz egitea errazteko lan-tresna gisa erabiltzeko diseinatu den aplikazio informatikoa.

Azkenik, gidan, metodoaren eta tresna informatikoaren aplikazio praktiko baten adibidea jasotzen da, eta eranskinetan, lortzen den bukaerako txostenaren eta prozesuan erabilitako galdetegiaren adibide bat.

5.1. METODOA

Proposatutako metodoa tokiko hiri-plangintza eta -garapen arloko politikek, planek eta/edo proiektuek osasunaren gainean daukaten eragina sistematikoki aztertzeo prozedura erraza da.

Gogoetarako elementu gisa sortu da eta eskura dauden ebidentzia zientifikoaren arabera aukeratutako jardunbide egoki multzo batean oinarritzen da.

Horretarako, ekimen batek pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean dauzkan ondorio posibleak modu prospektiboan identifikatzea ahalbidetzen duen galdetegi batzuk barne hartzen ditu. Bestalde, galdetegi horiek osasunaren gaineko eragin positiboak maximizatzeko eta negatiboak deuseztatzeko edo arintzeko alternatibak aukeratzen laguntzen dute.

Horrekin guztiarekin, udaletako hiri-plangintza eta -garapenaz eta garapen jasangarria sustatzeaz arduratzen diren sailtako langileei herritarren osasuna hobetzeko erabakiak hartzen lagundu nahi zaie.

Beraz, azterketatik ateratako informazioak, gutxienez, honetarako balio du:

- Hiri-ekimen edo esku-hartzeak hobetzeko, ikuspegi eta orientazio berritzaile bat emanez, hau da, osasun aldagaia ekimen edo esku-hartze horren edozein fasetan (diseinua, lanketa eta/edo garapena) barneratuzera bultzatuz.
- Partaidetza- eta komunikazio-mekanismoak babesteko, bai barnekoak (sailen arteko bilerak, batzordeak, udalbatzarrak, eta abar) bai kanpokoak (herritarrek parte hartzeko foroak, lan-tailerrak, mahai sektorialak, eta abar).

Gainera, azterketa egiteko prozedurak oinarriko 4 printzipio dauzkala azpimarratu behar dugu: ekitatea, partaidetza, elkarrekiko mendekotasuna, eta esku-hartze goiztiarra.

TOKIKO HIRIGINTZAKO EKIMENEK OSASUNEAN DAUKATEN ERAGINA AZTERTZEKO OINARRIZKO 4 PRINTZIPIO GIDARIAK

1. Ekitatea

Kontzeptu hori herritar guztiek —generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa, ezgaitasunak, eta abar gorabehera— komunitatearen askotariko zerbitzuak eskura izateko, bereganatzeko eta erabiltzeko aukera-berdintasun gisa ulertuz, eta aukera-berdintasun hori, osasun arloko gizarte-ezberdintasunak saihesteko modu gisa.

2. Partaidetza

Komunitatearen partaidetza herritarren osasuna hobetu dezakeen tresna bat da. Komunitatearen eta haren osasunari eragiten dioten erabakietan funtsezkoak diren beste-lako eragileen inplikazio aktiboa sustatzeak osasunaren mugatzaileetan esku-hartzeko ahalmena handitzen du.

3. Elkarrekiko mendekotasuna

Gidan aztertutako osasun arloko mugatzaileak osasun-eraketekin zuzenki lotuta daude, baina aldi berean, denak elkarlotuta daude; elkarrekiko mendekotasuna dago. Beraz, adibidez, garraio arloko aldaketek lanari, hezkuntzari, elikadura osasungarriari, jarduera fisikoari eta gizarte-harremanak izateko aukerari eragin diezaiekete, besteak beste.

4. Esku-hartze goiztiarra

Tokiko ekimenetan, hasierako faseak, diseinutik, osasunaren ikuspegia barneratzea eraginkorragoa da ekimenak formulatu edo landu ondoren hobekuntzak proposatzea baino. Gidaren funtzioa planifikatzaileei prozesu horretan laguntzeko tresna erabilgarria izatea da.

5.2. MODUS OPERANDI-A

Metodoa hiri-inguruneari eragingo dion edozein ekimen edo esku-hartzetan aplikatu daiteke; batez ere, bere ezauzgarriak edo norainokoa direla-eta osasunaren ondorio esanguratsuak eduki ditzaketenetan.

Metodoa ekimenaren diseinu-fasea gutxi asko aurreratuta dagoenean erabiltzea da egokiena, hau da, galdetegi erantzuteko adinako informazioa dagoenean, baina ez da komeni gehiegi atzeratzea, eta horren ondorioz, hobekuntza-gomendioak kontuan hartu ahal ez izatea.

4 fasez osatuta dago:

- **I. fasea.** Ekimenaren eta bere testuinguruaren azterketa.
- **II. fasea.** Galdetegi azkar baten bitartez, ekimenak potentzialki zein osasun arloko mugatzaileari eragingo dien identifikatzea:
 1. Elikadura osasungarria.
 2. Mugikortasuna.

3. Oinarrizko ekipamenduen sarea.
4. Enplegua.
5. Jarduera fisikoa.
6. Espazio publiko irekiak.
7. Etxebizitza.
8. Komunitatearen segurtasuna eta babesa.
9. Ingurumena.

— **III. fasea.** Eraginpean dauden mugatzaileen alderdi garrantzitsuenen ebaluazioa.


— **VI. fasea.** Bukaerako txostenaren lanketa.

1. eskeman, prozedurako faseak irudikatzen dira.

Prozedura aplikatzea errazteko, lantaldearen esparruan, erabiltzailea, modu ordenatuan, azterketaren fase batetik bestera bukaerako txostena egin arte bideratzen duen **tresna informatiko** bat garatu dugu (Ikus 1. irudia).

Jarraian, proposatutako metodoaren fase bakoitza garatuko dugu, tresna informatikoko dagozkion atalekin lotuta.

1. ESQUEMA. PROZEDURAREN FASEAK



1. IRUDIA. TOKIKO HIRIGINTZA-EKIMENEK OSASUNEAN DUTEN ERAGINA AZTERTZEKO TRESNA

Osasuna

Zabaldurik: [Facebook](#) [Twitter](#) [LinkedIn](#) [Share](#) [RSS](#)

Osasuna eta hiri-garapen jasangarria

Tokiko hirigintza-ekimenek osasunean duten eragina aztertzeko aukera ematen du tresna honek. Hain zuzen ere, "Osasuna eta hiri-garapen jasangarria" izeneko Udalsarea 21eko 17. koadernoari lotutako tresna da.

«Osasunaren aldeko tokiko ekintza. Herritarren osasuna eta ongizatea sustatu eta babestuko ditugula hitzeman dugu». Alaborgeko zazpigarren konpromisoa

Aplikazioaren sartzeko ezinbestekoa da erabiltzailea eta pasahitza izatea, honako posta elektronikoko helbidean eskatu behar direnak: udalsarea21@ihobe.net.

[Aplikazioarako sarbidea](#)

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA: HIRIGINTZA, HIRI-GARAPEN, LURRALDE POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE SALUD: DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

OSASUNA ETA HIRI-GARAPEN JASANGARRIA
 Tokiko hirigintza-ekimenek osasunean duten eragina aztertzeko tresna da.

[Udalsarea 21](#)

Osasuna eta hiri-garapen jasangarria

Ongi etorri tokiko hirigintza-ekimenek osasunean duten eragina aztertzeko tresnara.

Bilaketa aurreratua

Zer bilatu nahi duzu?

NOIZTIK: NOIZ ARTA:

Ondoren, sortutako ekimen guztien zerrenda ikusiko duzu.

Ekimenak, guztira: 0

Ez dago erakusteko datunik

Parte-hartzea, guztira:

I. FASEA. EKIMENAREN AZTERKETA

Fase honetan, ekimenaren testuinguruari, funtzioari, helburuei, potentzialki ekimenaren eraginpean egongo diren herritarrei eta aurrera eraman den partaidetza-prozesuari buruzko ahalik eta informazio gehien bildu behar da.

UDAL-TESTUINGURUA

Ekimena gauzatzeko duen udalerriri buruzko datu orokorrak biltzen ditu (Ikus 2. irudia).

EKIMENARI BURUZKO DATUAK

Ekimenaren deskribapen labur bat jasotzen du, eta bultzatzaileari, haren xedeari, egingo diren ekintzei, abiapuntuak arazorik izateari edo ez izateari, ekimenaren egoerari, egingo den tokiari, eremu horretan eta inguruetan dauden elementuei, eta abarri buruzko informazioa biltzen du.

Herria eta ingurua aztertzen ditu, ondoko informazioa jasota: osasun arloko oinarritzko adierazleen ingurukoa (erikortasuna, hilkortasuna, eta abar), osasunaren gizarte-mugatzaile nagusiei buruzkoa (ingurumen-kalitatea, faktore sozioekonomikoak, besteak beste,

enplegua, heziketa maila, zerbitzuen eskuragarritasuna, gizarte-babesa, eta abar) eta herritarren jokabide osasungarriei buruzkoa.

Datu horiek ezagutzea garrantzitsua da; izan ere, faktore batzuk babesleak edo ahultzaileak izan daitezke, eta beraz, osasun arloko emaitzetan eragin dezakete. Horregatik, informazio hori herritar-taldean arabera jasota izatea ere garrantzitsua da, gizarte-egoera ahulenerakoak barne hartuta, balitekeelako ekimenaren eraginak taldeen arabera aldatzea (Ikus 3. irudia).

PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK (BARRUKOA/UDALEZ GAINDIKOA/HERRITARRENA)

Ekimena gauzatzeko egin diren partaidetza-prozesuei buruzko informazioa biltzen du, bai barne mailakoei (udal-sailak) bai udalez gaindikoei eta herritarrenei buruzkoak.

Hainbat sektoreen ekarpenak jasotzea garrantzitsua izateaz gain, datu horiek ekimenaren inguruko polemikak eta onarpen maila ezagutzeko aukera ematen dute (Ikus 4. irudia).

2. IRUDIA. EKIMENAREN ANALISIA: UDAL-TESTUINGURUA

Ekimenaren analisia >> Ekimen berria

Ekimenaren analisia

- Testuingurua

- Ekimenari buruzko datuak

- Parte-hartzea

1. Testuingurua
2. Ekimenari buruzko datuak
3. Parte-hartzea

US21eko kidea: Lurralde historikoa:

Besterik: Probintzia:

Biztanleak:

Neurria:

Deskribapen geografikoa:

Indarreen dauden plan esanguratsuenak:

3. IRUDIA. EKIMENAREN ANALISIA: EKIMENARI BURUZKO DATUAK

Ekimenaren analisia >> Ekimen berria

Ekimena: -

1. Testuingurua
2. Ekimenari buruzko datuak
3. Parte-hartzea

Ekimenaren analisia

- Testuingurua
- Ekimenari buruzko datuak
- Parte-hartzea

Izenburua (*)

TEP-TA21ean jasota (*) Ez Bai LPE kodea:

Gal-esparrua: (*)

Deskribapen laburra:

Nork sustatzen du?

Xedea:

Eragindako barrutia/suzoa:

Ekimenak eragin lizalokeen herritar-kopurua:

Ezaugarri demografiko eta sozioekonomiko alpagarriak (adina, sexua, enplegua...):

Gehien eragindako populazio-taldeak (alde zein kontra):

Ekimenaren fasea:

Fasearen deskribapena:

Eragitako gaitasuna:

GORDE

4. IRUDIA. EKIMENAREN ANALISIA: BARNEKO ETA KANPOKO PARTE-HARTZERAKO MEKANISMOAK

Ekimenaren analisia

Ekimena: -

1. Testuingurua
2. Ekimenari buruzko datuak
3. Parte-hartzea

Barrukoa

Herritarrek parte hartzeko erabiliko mekanismoa:	Esku hartzen duten sailak	Motak	Parte-hartzaile kopurua
Ez dago daturik			
<input type="text"/> <input style="float: right;" type="button" value="+"/>			
E-mailtzak: <input type="text"/>			
Oharrak: <input type="text"/>			

Udalaz gairikoa

Herritarrek parte hartzeko erabiliko mekanismoa:	Erakundeak	Motak	Parte-hartzaile kopurua
Ez dago daturik			
<input type="text"/> <input style="float: right;" type="button" value="+"/>			
E-mailtzak: <input type="text"/>			
Oharrak: <input type="text"/>			

Herritarrena

Herritarrek parte hartzeko erabiliko mekanismoa:	Gehien eragindako populazio-taldeak (alde zein kontra)	Motak	Parte-hartzaile kopurua
Ez dago daturik			
<input type="text"/> <input style="float: right;" type="button" value="+"/>			
E-mailtzak: <input type="text"/>			
Oharrak: <input type="text"/>			

II. FASEA. ERAGINPEAN DAUDEN OSASUN ARLOKO MUGATZAILEAK IDENTIFIKATZEA

Galdetegi azkar baten bidez (ikus 5. irudia eta 1. eranskina), atariko azterketa bat egiten da, ekimenak **osasu arloko mugatzailetzat** jotzen den hiri-ingurunekeo zein faktoreri eragin diezaiokeen identifikatzeko.

Mugatzaile horien eta osasu arloko emaitzen eta gizarte-desberdintasunen arteko harremana garbi frogatu da, ebidentzia zientifikoaren bidez.

Galdetegiak bederatzita bloke dauzka, aztertutako mugatzaile bakoitzeko bana:

1. Elikadura osasungarria.
2. Mugikortasuna.
3. Oinarrizko ekipamenduen sarea.
4. Enplegua.
5. Jarduera fisikoa.
6. Espazio publiko irekiak.
7. Etxebizitza.
8. Komunitatearen segurtasuna eta babesa.
9. Ingurumena.

Mugatzaile bakoitzak osasunerako mesedegarriak diren hiri-garapenekeo helburu eta estrategiekin —**funtsezko alderdiak** deitu diegu— zuzenki lotutako atal batzuk dauzka.

Ekimena aztertu eta potentzialki horren eraginpean dauden herritarrak identifikatu ondoren, ekimenaren eraginpean egon daitezkeen mugatzaileak eta beren funtsezko alderdiak aukeratzeko ahalgintza beharra dago.

Horretarako, ondorengo galdera erantzun beharko da:

Ekimenak elikadurari nabarmen eragin diezaioke (positiboki edo negatiboki)? Mugikortasunari? Oinarrizko ekipamenduen sareari? Jarduera fisikoari? Etxebizitzari?...

Adibidez, jarduera fisikoan eragina izango duela sustatzen bada, multzo horretan proposatutako funtsezko alderdiak (oinez eta bizikletaz ibiltzeko aukerak eta mugikortasun aktiboko beste modu batzuk sustatzen ditu ala ez? Aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabili ahal izatea sustatzen du ala ez?) gai horretan sakontzen jarraitzeko balio duten egiaztatzekeo balio dute.

5. IRUDIA. EKIMENAK OSASUNAREN ZEIN MUGAGARRIETAN DUEN ERAGINA IDENTIFIKATZECO GALDETEGI AZKARRA

Galdetegiak

Ekimena: -

Ekimenaren analisia

Galdetegiak

- Galdetegi azkarra

- Aztertu beharrekeo funtsezko alderdiak

Atariko informazioa

Ondoriozko Txostenak

1. Galdetegi azkarra
2. Aztertu beharrekeo funtsezko
3. Galdetegi espezifikoak

Baliteke ekimenak hauei nabarmen eragitea (alde naiz kontra):

1. Elikadura osasungarria		
<input type="checkbox"/> ...askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukeran	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...nekazaritzako lurren kontserbazioan	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...tokiko elikagaien ekoizpena babesten	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
2. Mugikortasuna		
<input type="checkbox"/> ...garrailo publikoko zerbitzuak sustatzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input checked="" type="checkbox"/> ...ibilgailu motordunekiko mendekotasuna txikitzen, eta mugikortasun aktiboa sustatzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input checked="" type="checkbox"/> ...hiri-garapen trinkoa sustatzen, eta/edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
3. Oinarrizko ekipamenduen sarea		
<input type="checkbox"/> ...hasuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin eta/edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduak sortzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...oinarrizko ekipamenduak biltzen dituen eraikinari askotariko erabilerak ematen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...oinarrizko ekipamenduen diseinuaren onespenean	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
4. Enplegua		
<input type="checkbox"/> ...tokian tokiko lan-aukeretan	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...askotariko lanak lortzeko aukeretan	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza lortzeko aukeran	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
5. Jarduera fisikoa		
<input type="checkbox"/> ...oinez ibiltzeko, bizikletaz ibiltzeko eta mugikortasun aktiboko beste modu batzuen bidez mugitzeko aukerak ematen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input checked="" type="checkbox"/> ...aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzeko aukeran	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
6. Espazio publiko irekiak		
<input type="checkbox"/> ...berdeguneak eta/edo inguru naturalak hornitzean	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input checked="" type="checkbox"/> ...espazio publiko ireki inisgarriak, erakargarriak eta seguruak bultzatzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input checked="" type="checkbox"/> ...leku publikoen diseinuaren onespenean	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...garrantzi naturala, historikoa eta/edo kulturala duten lekuak babesten eta/edo hobetzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
7. Etxebizitza		
<input type="checkbox"/> ...etxebizitza osasungarriak bultzatzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK
<input type="checkbox"/> ...askotariko etxebizitzak bultzatzen	IKUSI GE	OSASUN-EMAITZAK

III. FASEA. FUNTSEZKO ALDERDIEN EBALUAZIOA

Ekimenaren eraginpean egon daitezkeen mugatzaileak eta beren funtsezko alderdiak identifikatu eta aukeratu ondoren (Ikus 6. irudia), hurrengo pausoa sakonago aztertzea da. Horretarako, **galdetegi espezifikoak** daude (ikus 2. eranskina).

Galdetegi horiek beharrezkoak dira ekimenak funtsezko alderdietan deskribatutako helburuak lortzeko eragin positiboa edo negatiboa daukan aztertu eta zehazteko.

Prozesu horrek bai ekimena zein ingurunetan gauzatuko den bai horren eraginpean zein herritar egon daitezkeen jakitea eskatzen du.

Galdetegietan (Ikus 7. irudia) ondoko bereizketa egiten da:

- **Galdera orokorrak.** Ekimenaren helburu edo asmoekin lotutako galderak. Horiei erantzuteko, ekimenaren azterketa-fasean bildutako informazioa erabiliko da; zehazki, helburuei, eraginpean dauden herritarrei, sektoreen eta eragileen iritziari eta abarri buruzkoa.
- **Hiri-antolamenduari buruzko galderak.** Esku-hartzearen alderdi fisikoekin lotutako galderak. Galdera horiei erantzuteko, proiektuarekin batera dauden mapa edo planoetara jo beharko da.

Galdera espezifikoak ebidentzia zientifikoen arabera osasun arloko emaitzak hobetzen laguntzen duten **jardunbide egokiekin** eta jardurekin lotuta daude.

Galderak erantzun hauek emateko prestatuta daude:

- **BAI:** ekimenak jardunbide egokia barne hartzen du.
- **EZ:** ekimenak ez du jardunbide egokia barne hartzen.
- **EZ DAGOKIO:** ez dagokio edo ekimenean ez da aplikatzen.
- **OHARRAK:** Zalantzarik izanez gero, BAI eta EZ erantzuteaz gain, oharrak idatzi daitezke. Ohar horiek, bukaerako txostena idazterakoan, erantzunari balioa emango diote.

Batzuetan, mugatzaile batean eta bestean galderak errepikatu egingo dira edo antzekoak izango dira. Aurretik aipatu dugun bezala, mugatzaileen eta osasun arloan daukaten eraginaren arteko loturaren ondorioz gertatzen da hori.

Galdetegiaren bidez, halaber, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu daiteke. Horri esker, gomendioen zerrenda bat egin ahal izango da, bukaerako txostenean kontuan har daitezkeen.

Galdetegi espezifikoak bukatu ondoren, lortutako emaitzen arabera, ekimenak dagokion funtsezko alderdian deskribatutako helburua lortzeko **zer ekarpen egiten duen baloratu behar da, orokorrean** eta subjektiboki:

- POSITIBOA.
- NEGATIBOA.
- Ez du eraginik.

IV. FASEA. TXOSTENA EGITEA

Aurreko faseak osatutakoan, beharrezko **aurretiazko informazioa** dugu eskuragarri (ikus 8. irudia), aplikazio informatikoak **amaierako txostena** osatu eta eskura dezan (3. eranskina).

Edonola ere, tresna informatikoaren bitartez eskuraturako ekimenaren azterketaren amaierako informazioaren helburuak eta hartzzaileek zehaztuko dute erabiltzaileak aipatu informazioa islatzeko amaierako formatua. Gomendio modura, honako hauek dira kontuan hartu beharreko gutxieneko atalak:

1. Sarrera

Hiri-plangintzako hainbat faktorek herritarren osasunean eragiten dutela eta tokiko politiken bitartez osasuna sustatzeko eta herritarren arteko osasun arloko desberdintasunak murrizteko neurriak har daitezkeela aipatuko dugu, laburki. Tokiko Agenda 21en eta Aalborgeko 7. Konpromisoaren barruan kokatu, eta garapen jasangarriarekin lotuko dugu.

2. Ekimenaren aurkezpena eta justifikazioa

Testuingurutik eta ekimenari buruzko datuetatik abiatuz, ondokoak deskribatu: ekimena zertan datzan, non egingo den, zein helburu daukan, nork bultzatzen duen eta zertarako planteatu den, TA21en Tokiko Ekintza Planean aurreikusita dagoen, horren inguruko polemikarik dagoen, eta abar.

3. Ekimenaren eraginpeko herritarrak

Ekimena ezarriko den eremuko komunitatearen profilarren deskribapen laburra; herritarren egitura, sexua-ren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren, lan-egoeraren, etxe-moten eta abarren arabera.

Ekimenak herritar guztiei berdin eragingo dien edo talde batzuei onura handiagoa edo txikiagoa egingo dien identifikatu.

Komunitateko talderen bat desabantailan dagoen edo ahula den eta ekimenak beraiengan zer eragin izango duen pentsatzea garrantzitsua da.

6. IRUDIA. EKIMENEAN XEHE AZTERTZEKO HAUTATUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Galdetegiak

Ekimena: -

1. Galdetegi azkarra > 2. Funtsezko alderdiak > 3. Galdetegi espezifikoak >

1. Elikadura osasungarria		
Ekimenak askotariko elikagaiak arrazoizko prezioen ...	Ekimenak lurra nekazaritzarako erabiltzea abokitze...	Ekimenak tokiko elikagaiak ekoiztea bultzatzen du
2. Mugikortasuna		
Ekimenak garraio publikoko zerbitzuak sustatzen dit...	Ekimenak gutxitu egiten du motordun ibilgailuekiko ...	Ekimenak hiri-garapen trinkoa edo lehendik dauden h...
3. Oinarritzko ekipamenduen sarea		
Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerb...	Ekimenak oinarritzko ekipamenduk biltzen dituen era...	Ekimenak herritarrek espazio publikoaren diseinua o...
4. Enplegua		
Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen ditu	Ekimenak askotariko enpleguak lortzeko aukerak sust...	Ekimenak tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza...
5. Jarduera fisikoa		
Ekimenak aukera ematen du oinez ibiltzeko, biziklet...	Ekimenak aisialdi aktiborako moduko espazio publiko...	
6. Espazio publiko irekiak		
Ekimenak berdeguneen eta inguru naturalen erabilera...	Ekimenak espazio publiko erakargarriak, aise iriste...	Ekimenak herritarrek espazio publikoaren diseinua o...
Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edo kultura ...		
7. Etxebizitza		
Ekimenak etxebizitzak osasungarriak izatea bultzat...	Ekimenak askotariko etxebizitzak izatea bultzatzen ...	Ekimenak etxebizitzak eskuragarriak izatea bultzat...
8. Segurtasuna eta babesa		
Ekimenak espazio publikoetan herritarren segurtasun...		
9. Ingurumena		
Ekimenak airearen kalitatea hobetzen laguntzen du	Ekimenak uraren kalitatea hobetzen edo haren eskaer...	Ekimenak gutxitu egiten ditu zaratarekin, usainekin...
Ekimenak murriztu egiten ditu jatorri naturaleko na...	Ekimenak klima-aldaketa arintzen laguntzen du	

7. IRUDIA. AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIETAKO BATI BURUZKO GALDETEGI ESPEZIFIKOA

Galdetegiak

Ekimena: -

1. Galdetegi azkarra > 2. Aztertu beharreko funtsezko > 3. Galdetegi espezifikoak >

Aztertu beharreko funtsezko alderdia: Ekimenak hiri-garapen trinkoa edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea sustatzen du

Galdera orokorra:
Helburuen artean, hiri-garapen trinkoa sustatzea eta lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea jasotzen al du? (*)

Oharrak
[]

Hiri-antolamendua:
Hiriko bide-sare berriak aurrez dagoen bide-sarearekin konektatzeko aukera ziurtatzen al du? (*)

Oharrak
[]

(*)BALORAZIO OROKORRA: Funtsezko alderdi honen aldekoa izango da ekimena

Alde
 Kontra
 Ez dio eragiten

GORDE

8. IRUDIA. AMAIERAKO TXOSTENA SORTZEKO AURRETIAZKO INFORMAZIOAREN HAINBAT ATAL. EKIMENEAN HOBETU LITEZKEEN ALDERDIEN AUKERAKETA

Atariko informazioa

Ekimena: -

Testuinguruan kokatzea
Alderdi nagusiak
Parte-hartzea
Hobetu daitezkeen alderdiak
Eragindako mugatzaileak
Osasun-emaizak

EKIMENEAN HOBETU DAITEZKEEN ALDERDIAK

** Adierazi zein doazen azken txostenera

Ekimenaren analisia

Galdetegiak

Atariko informazioa

- Testuinguruan kokatzea
- Parte-hartzea
- Eragindako mugatzaileak
- Alderdi nagusiak
- Hobetu daitezkeen alderdiak
- Osasun-emaizak

Ondoriozko Txostenak

- Azken txostena
- Eragindako mugatzaileak
- Eragindako funtsezko alderdiak
- Hobe daitezkeen atalak
- Osasun arloko emaitzen txostena

2. Mugikortasuna

Ekimenak gutxitu egiten du motordun ibilgailuekiko mendekotasuna, eta mugikortasun aktiboa sustatzen du

- Helburuen artean, motordun ibilgailuekiko mendekotasuna biktzea eta mugikortasun aktiboa sustatzea jasotzea
- Joan-etorri aktiboa sustatzeko neurriak proposatzea (Oharra: Konektatutako espaloi seguruak, oinezkoentzako eremuak, abiadura-mugak, ibilgailuak sartzeko mugak, TAO, disuasio-aparkalekuak, etab.)
- Bizikletaren erabilera sustatzea (Adibidez, «aparkatu eta bizikletaz joan», bizikleten zerbitzu publikoa, bizikletetarako aparkalekuak eta horrelako neurrien bidez)
- Hiriguneetan aparkaleku-guneak murriztea sustatzea (Batez ere, garraio publikoko zerbitzu egokia duten inguruetan)
- Elkarren artean ondo konektatutako kaleen eredu bat zehaztea
- Oinezkoak harrapatze arisku handia duten puntuetan edo inguruetan segurtasun-neurriak ezartzea (Oharra: Trenbide-pasaguneetan, zirkulazio-dentsitate handiko guneetan, oinezkoen edo birrindularien zirkulazio handiko inguruetan, eta abar)
- Kaleetan oinezko, bizikleta eta/edo motordun ibilgailuen erabilera mugatzeko eta hiriko bizikidetzaren bizigarritasuna hobetzeko laguntzeko elementuak izatea (Oharra: Abiadura murrizteko neurriak eta/edo espaloia inbaditzea eragozten duten eremu publikoa babesteko neurriak, eta abar)
- Eraikinetan sartzeko lehentasuna oinezkoiei eta birrindulariei ematea, eta sarrerak seguruak eta irisgarriak izatea. (Oharra: Autoekin, garajeetako sarrerekin eta abarrekin gatazkak izatea saihesteko)
- Motordun ibilgailuen zirkulazioa moteltzeko eta oinezkoen segurtasuna handitzeko dauden elementuak segurtasun-zein pasatzen uztea bizikletari
- Espaloiak eta oinezkoentzako guneak denentzat irisgarriak izateko moduan diseinatuta egotea

Ekimenak hiri-garapen trinkoa edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea sustatzen du

- Helburuen artean, hiri-garapen trinkoa sustatzea eta lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea jasotzea
- Hiriko bide-sare berriak aurrez dagoen bide-sarearekin konektatzeko aukera ziurtatzea

5. Jarduera fisikoa

Ekimenak aisialdi aktiborako moduko espazio publiko irekiak erabiltzea sustatzen du

- Helburuen artean, aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak sustatzea jasotzea
- Beharren aurretiazko azterketa egitea, aisialdi aktiborako moduko espazio publiko irekien kopurua eta kokapena zehazteko
- Eremuan dauden aukerak, aisialdi aktiborako egokiak diren beste espazio batzuekin osatzea
- Espazio horien diseinuaren eta kudeaketaren bidez, beste hainbat jarduera egiteko aukerak ematea
- Espazio horiek herritarrek bertan bizitzen hasten direnetik bertatik erabilgarri egotea proposatzea

4. Ekimena gauzatzeko zer partaidetza-prozesu egin den

Udal mailako barneko eta kanpoko partaidetza bereizi. Erabilitako mekanismoak, partaidetza mota, eragile parte-hartzaileen iritzia, etab.

5. Ekimenak osasun arloko zein mugatzailei eragingo dien

Galdetegi azkar baten bidez aukeratu eta gero sakonago aztertu ditugun mugatzaileak.

6. Galdetegi azkar baten bidez aukeratu eta gero sakonago aztertu ditugun mugatzaileak

Ekimenaren eragin positiboaren pean dauden funtsezko alderdiak.

7. Osasunean eragin potentzial negatiboa daukaten ekimenaren alderdiak

Ekimenaren eragin negatiboaren pean dauden funtsezko alderdiak Ekimenaren eragin negatiboaren pean dauden funtsezko alderdiak.

8. Hobetzeko proposamenak, eragin positiboak ahalik eta handienak eta/edo negatiboak ahalik eta txikienak izateko

Emaitza negatiboa daukaten galdera espezifikoa edo jardunbide egokiak.

9. Osasun arloan espero diren emaitzak

Aztertutako funtsezko alderdiekin lotuta osasun arloan espero diren eraginak.

Zortzigarren atalari dagokionez, alde aurreko balorazio bat egin behar da, txostenean zeintzuk barneratuko ditugun erabakitze. Balorazio horretan, bideragarritasun ekonomiko, politikoa edo sozialeko irizpideak kontuan hartuko ditugu. Horretarako, aurretik, inplikaturako eragileekin kontsultatu behar ditugu.

Txosten horretako xehetasunetan gehiago edo gutxiago sakontzea, baita idazteko zer lengoia erabili ere, hartzailearen eta helburuaren arabera izango da:

- Hirigintzako sailak ekimen baten atariko azterketa egitea,
- Udal-batzorde batean eztabaidatzeko informazioa lortzea,
- Ekimena diru-laguntza deialdiren batera aurkeztea,
- Herri-partaidetza prozesuetarako materiala sortzea,
- Etab.

32 :::::

METODOA KASU PRAKTIKO BATEAN APLIKATZEA

Jarraian aurkeztutako kasua «Uretamendi-Betolaza eta Ingurubidearen Erabateko Eraberritze Proiektua (Bilbo-Bizkaia)» izenekoaren egokitza pen bat da —2005 eta 2006 bitartean garatu zen—, eta erreferentziatzat haren bi jarduketa hartzen ditu.

6.1. IGOGAILU PUBLIKO BAT ETA BI ESPAZIO PUBLIKO EKIPATU ERAIKITZEA

I. FASEA. EKIMENAREN ANALISIA

UDAL TESTUINGURUA

Ibar batean kokatutako 30.000 biztanle inguruko udalerrri bat da. Ibarrek hirigintza-garapen puntualak izan ditu, baina handiak ibarraren hegal batean; horren ondorioz, hainbat gune, isolatuta ez badaude ere, ez dira iristen errazak, haietara joateko malda handia gainditu beharra baitago.

Indarreko plangintzei dagokienez, ondokoak nabarmentzen dira: Tokiko Ekintza Plana (TEP-TA21), Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPN), Mugikortasun eta Irisgarritasun Plana, Gazteria Plana, Hirugarren Adinekoentzako Plana eta Immigrazio Plana.

EKIMENA

Ekimenaren bidez **igogailu publiko bat eraikiko da**, iristeko dauden arazoak murrizteko, eta bertan bizi direnen iritzia aintzat hartuta.

Horrez gain, **urbanizatu gabeko bi lursail ere hornituko** dira, gizarte-harremanetarako espazio publiko bihurtzeko. Bankuak, zabuak eta «hiri-gimnasio» bat jarriko dira. Plangintza-an (HAPN) «ekipamendu-erabilera» gisa jasota daude lursail horiek.

Proiektua idazteko fasean dago ekimena, Tokiko Ekintza Plana-TA21en ildo estrategikoan bildutako jardueretako bi baitira —horiei oraindik heldu gabe—, udalerriko Mugikortasun eta Irisgarritasun Planarekin bat etorrita. Udala da sustatzailea. Ekimena proiektuaren idazketa-fasean dagoenez, eragiteko edo hobetzeko elementuak eransteko ahalmen handia dago.

Etxebizitza horietan eraiki zituztenetik bizi direnak adinean aurrera doaz, baina belaunaldien arteko erreleboa gertatzen ari da, halere. Kokapena eta irisgarritasuna dela-eta, ez da oso auzo erakargarria; nolahi ere, etxebizitzak merkeagoak direnez gazteak hara joan dira, eta familia-nukleo berriak osatzen hasi dira. Horrenbestez, jaiotza-tasak gora egin du aurreko udal-eroldaren aldean.

Pertsona adindunak eta/edo mugikortasuna murriztuta dutenak hartzen dira gehien eragindako herritar-talde

gisa. Era berean, familia-nukleo berriak sortzeak haur-aulkiak erabiltzea ere badakar, eta maldak eta espaloï estuak direla-eta, biztanle horietako asko lekualdatu behar dutenean ibilgailua erabiltzera ohitu dira. Hein txikiagoan, eragin negatiboa izan dezake lehen oinez lekualdatu eta orain igogailua erabiliko duten pertsonengan.

Espazio publikoei dagokienez, onura handien eskuratu-tuko duten pertsonak adinekoak, adingabeak dituzten familiak eta gazteak izango dira.

PARTE HARTZEA

Barne-partaidetza

- **Barne-partaidetza:**
Barneko lan-bilerak.
- **Tipologia:**
Erabakitzailea.
- **Esku hartzen duten sailak:**
Gizarte Gaietako, Espazio Publikoko eta Hirigintzako langileek esku hartu dute.
- **Emaitzak:**
Auzoko bizilagunei igogailua martxan jartzen denean izango dituzten onurak ezagutarazi behar zaizkie. Horrez gain, eraikuntza-lanak egiten diren bitartean, arazo gehiago sor daitezkeela, baina Gizarte Gaietako Sailaren babes intentsiboarekin minimizatu egingo direla jakinarazi behar zaie.
- **Oharrak:**
Herritarren aldetik onespren handiagoa izan dadin, auzoko gizarte-liderren esku-hartzea lortu behar da. Harreman horiek egin ondoren, jasotako informazioa partekatu beharko da, maila korporatiboan, baita horren analisisa eta balorazioa ere, herritar guztiei aurkeztu beharreko planteamenduan aldaketarik egin behar ote den ikusteko.

Udalaz gaindiko partaidetza

Sakon aztertu ostean, Udalak iritzi dio ez dela beharrezkoa, nahasitako espazio publikoa erabiltzea bateragarria baita indarreko plangintzan jasotako erabilerekin.

Herritarren parte-hartzea

- **Herritarren parte-hartzea:**
Informazio-saio bat izan da eta ondorioz herritarren partaidetzarako 3 foro gutxienez egitea aurrekusi

da: proiektua aurkezteko, hobetzeko ekarpenak zein alderdien sentipenak biltzeko; eta, azkenik, aldatutako proiektua aurkezteko, auzoko komunitatearen aldetik jasotako ekarpenak onartzeko edo baztertzeko arrazoiak azalduta.

- **Tipologia:**
Informatzailea.
- **Aintzat hartu diren herritar taldeak eta interesdun eragileak:**
Egoitza auzoan daukaten elkarteak, gizarte-laguntzaileak eta herritar guztiak.
- **Emaitzak:**
Biztanle batzuen artean nolabaiteko kezka hauteman da udalerriko gainontzeko biztanleek haien «espazioa inbaditzeko» aukeraren aurrean, auzoaren beraren balioetan eta nortasunean eraginda. Gauzez igogailuari zein hornitutako espazioei eman liezaieketen erabilera kezkatzen ditu gehienbat.
- **Oharrak:**
Herritarren partaidetza-prozesua «kontsulta» eta «eztabaida»ren artean kokatu da, herritarren iritzia kontuan hartzea baita asmoa.

II. FASEA. ERAGINPEAN DAUDEN OSASUN ARLOKO MUGATZAILEAK IDENTIFIKATZEA

I. fasean bildutako informazio guztia oinarri hartuta, **«galdetegi azkarra»** deitutakoari erantzi zaio ekimenak zer mugatzailei eragingo dien zehazteko.

Galdetegi azkarra erantzun ondoren, ekimenaren **eraginpeko mugatzaile** hauek identifikatu dira:

- Mugikortasuna.
- Jarduera fisikoa.
- Espazio publiko irekiak.
- Segurtasuna eta babesa.
- Ingurumena.

III. FASEA. FUNTSEZKO ALDERDIEN EBALUAZIOA

Hautatutako funtsezko alderdi bakoitzean berariazko gai guzti-guztiei erantzun ondoren, funtsezko alderdi bakoitzean **ebaluazio global** bat egiten da, ekimenak horietako bakoitzari ekarpen positiboa edo negatiboa

egiten dion, edo, aurretiazko iritziaren kontra, eraginik ez duen.

Fase honen ondorioz ekimenaren eraginpeko funtsezko alderdi guztiak zehaztuko dira, bai eta eragin hori positiboa edo negatiboa den ere; ondorioz, haien osasunaren gainean izan lezakeen eragina zehaztuko da. Halaber, ekimena hobe lezaketan alderdiak ere zehazten dira.

IV. FASEA. TXOSTENA EGITEA

Aplikazio informatikoak sortzen duen **Amaierako Txostenak** (Ikus 3. eranskina) bertan sartutako informazio guztia bere horretan «itzultzen du»; hori deskargatu eta editatu daiteke, erabiltzaileak aldatu edo osa dezan, «IV. FASEA. Txosten egitea» (30. orria) puntuan horren gainean egiten diren gomendioak aintzat hartuta.

07.

BIBLIOGRAFIA

- BORRELL C., DÍEZ E., MORRISON J. y CAMPRUBÍ L., 2012. Las desigualdades en salud a nivel urbano y las medidas efectivas para reducirlas. Barcelona: Proyectos Medea e IneqCities.
- COMISIÓN PARA REDUCIR LAS DESIGUALDADES SOCIALES EN SALUD EN ESPAÑA, 2010. Avanzando hacia la equidad. Propuesta de políticas e intervenciones para reducir las desigualdades sociales en salud en España. Comisionado por la Dirección General de Salud Pública y Sanidad Exterior. Ministerio de Sanidad y Política Social.
- DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTE. DIRECCIÓN DE TRANSPORTES. GOBIERNO VASCO, 2012. Manual de Buenas Prácticas en materia de Movilidad.
- ESNAOLA S, BACIGALUPE A, CALDERÓN C, ZUAZAGOITIA J, ALDASORO E. Evaluación del impacto en la salud del Plan de Reforma Integral de Uretamendi-Betolaza y Circunvalación. Vitoria-Gasteiz: Departamento de Sanidad y Consumo; 2008.
- GEDDES I., ALLEN J., ALLEN M. AND MORRISSEY L., 2011. «The Marmot review: implications for spatial planning».
- IHOBE.2004. Manual para la redacción de Planeamiento urbanístico con criterios de sostenibilidad. Departamento e Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, EUDEL e IHOBE
- IHOBE, 2008. Criterios de sostenibilidad aplicables al planeamiento urbano. Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco e IHOBE.
- JACKSON R.J., MD, KOCHTITZKY C., 2010. Creating a Healthy Environment: The impact of the built environment on Public Health. Sprawl Watch Clearinghouse Monograph Series.
- LAVIN T., HIGGINS C., METCALFE O. AND JORDAN A. Institute of Public Health in Ireland, 2006. Health Impacts of the Built Environment: A Review.
- MARMOT M., ALLEN J., GOLDBLATT P., BOYCE T., MCNEISH D., GRADY M. AND GEDDES I., 2010. Fair society, Healthy lives. The Marmot Review. A Strategic Review of Health Inequalities in England Post-2010.
- MINISTERIO DE SANIDAD Y CONSUMO 2006. Determinantes Sociales de la Salud. Los hechos probados. Editado por Richard Wilkinson y Michael Marmot. Publicado en 2003 por la Oficina Regional para Europa de la Organización Mundial de la Salud con el título de Social determinants of health. The solid facts. Second edition. Organización Mundial de la Salud, 2003.
- MINISTERIO DE SANIDAD Y POLÍTICA SOCIAL, 2010. Conceptos y principios de la lucha contra las desigualdades sociales en salud: Desarrollando el máximo potencial de salud para toda la población-Partes 1 y 2. Publicado en inglés por la Oficina Regional de la OMS para Europa en 2006 con el título Concepts and principles for tackling social inequities in health: Levelling up Part 1. Whitehead M. and Dahlgren G., 2006.
- NHS LONDON HEALTHY URBAN DEVELOPMENT UNIT, 2007. Delivering Healthier Communities in London.

- NHS LONDON HEALTHY URBAN DEVELOPMENT UNIT, 2009. Watch out for health. A checklist for assessing the health impact of planning proposals.
- NSW DEPARTMENT OF HEALTH, 2009. New South Wales Healthy Urban Development checklist. A guide for Health services when commenting on development policies, plans and proposals.
- OBSERVATORIO DE SALUD Y MEDIO AMBIENTE DE ANDALUCÍA, 2010. Urbanismo Medio Ambiente y Salud
- PERROTTA, K., 2011. Public Health and Land Use Planning: Highlights. Prepared for the Clean Air Partnership (CAP) in partnership with the Ontario Public Health Association (OPHA).
- ROBERT WOOD JOHNSON FOUNDATION, 2012. How does transportation impact health?
- RODRÍGUEZ-ROMO G., GARRIDO-MUÑOZ M., LUCÍA A., JUAN I. MAYORGA J.I.Y RUIZ J.R., 2013. Asociación entre las características del entorno de residencia y la actividad física. Gaceta Sanitaria 27, 6.
- SAFEPOLIS 2009, Planificación diseño urbano y gestión para espacios seguros. Manual. AGIS-ACTION SAFEPOLIS 2006-2007. Resultado de la acción SAFEPOLIS co-financiada por la Comisión Europea – Dirección General de Justicia, Libertad y Seguridad (Contrato JLS/2006/AGIS/208)
- UNIVERSITY OF MINNESOTA, 2007. Design for Health. Planning Information Sheet: Integrating Health into Comprehensive Planning.

1. ERANSKINA

EKIMENAK OSASUNAREN HAINBAT MUGATZAILETAN DAUKAN ERAGINA AZTERTZEKO GALDETEGI AZKARRA

2. ERANSKINA

EKIMENAK OSASUNAREN HAINBAT MUGATZAILETAN DAUKAN ERAGINA AZTERTZEKO GALDETEGI ESPEZIFIKOA

1. GALDETEGIA **ELIKADURA OSASUNGARRIA**
2. GALDETEGIA **MUGIKORTASUNA**
3. GALDETEGIA **OINARRIZKO EKIPAMENDUEN SAREA**
4. GALDETEGIA **ENPLEGUA**
5. GALDETEGIA **JARDUERA FISIKOA**
6. GALDETEGIA **ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK**
7. GALDETEGIA **ETXE BIZITZA**
8. GALDETEGIA **SEGURTASUNA ETA BABESA**
9. GALDETEGIA **INGURUMENA**

3. ERANSKINA

KASU PRAKTIKOAREN AMAIERAKO TXOSTENA
Ilogailu publiko bat eraikitzea eta bi espazio publiko ekipatu sortzea

1. ERANSKINA

EKIMENAK OSASUNAREN HAINBAT MUGATZAIL ETAN DAUKAN ERAGINA AZTERTZEKO GALDETEGI AZKARRA

Baliteke ekimenak eragin nabarmena izatea (ona edo txarra) ...

OSASUNAREN MUGATZAIL EEN FUNTSEZKO ALDERDIAK	ERAGIN NABARMENA		
	Bai	Ez	Oharrak
1. ELIKADURA OSASUNGARRIA			
1.1. ...askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukeran			
1.2. ...nekazaritzako lurren kontserbazioan			
1.3. ...tokiko elikagaien ekoizpena babesten			
2. MUGIKORTASUNA			
2.1. ...garraio publikoko zerbitzuak sustatzen			
2.2. ...ibilgailu motordunekiko mendekotasuna txikitzen, eta mugikortasun aktiboa sustatzen			
2.3. ...hiri-garapen trinkoa sustatzen, eta/edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzen			
3. OINARRIZKO EKIPAMENDUEN SAREA			
3.1. ...hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin eta/edo kulturarekin lotutako oinarritzko ekipamenduak sortzen			
3.2. ...oinarritzko ekipamenduak biltzen dituen eraikinari askotariko erabilerak ematen			
3.3. ...oinarritzko ekipamenduen diseinuaren onespenean			
4. ENPLEGUA			
4.1. ...tokian tokiko lan-aukeretan			
4.2. ...askotariko lanak lortzeko aukeretan			
4.3. ...tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza lortzeko aukeran			
5. JARDUERA FISIKOA			
5.1. ...oinez ibiltzeko, bizikletaz ibiltzeko eta mugikortasun aktiboko beste modu batzuen bidez mugitzeko aukerak ematen			
5.2. ...aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzeko aukeran			
6. ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK			
6.1. ...berdeguneak eta/edo inguru naturalak hornitzean			
6.2. ...espazio publiko ireki irisgarriak, erakargarriak eta seguruak bultzatzen			
6.3. ...leku publikoen diseinuaren onespenean			
6.4. ...garrantzi naturala, historikoa eta/edo kulturala duten lekuak babesten eta/edo hobetzen			
7. ETXEBIZITZA			
7.1. ...etxebizitza osasungarriak bultzatzen			
7.2. ...askotariko etxebizitzak bultzatzen			
7.3. ...etxebizitzak arrazoizko prezioak izatea bultzatzen			
8. SEGURTASUNA ETA BABESA			
8.1. ...espazio publikoetan herritarren segurtasuna eta babesa bultzatzen			
9. INGURUMENA			
9.1. ...airearen kalitatea hobetzen			
9.2. ...uraren kalitatea hobetzen eta/edo eskaera txikitzen			
9.3. ...zaratekin, usaiekin eta/edo argiztapenarekin lotutako arazoak gutxitzen			
9.4. ...jatorri naturala edo antropogenikoa duten arriskuak murrizten			
9.5. ...klima-aldaketa arintzen			

2. ERANSKINA

EKIMENAK OSASUNAREN HAINBAT MUGATZAILETAN DAUKAN ERAGINA AZTERTZEKO GALDETEGI ESPEZIFIKOAK

1. GALDETEGIA ELIKADURA OSASUNGARRIA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukera sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA:		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
		<input type="checkbox"/> Negatiboa		
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Ekimenaren helburuen artean askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukera sustatzea jasotzen da?				
Askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukera* errazten du?				
*(oharra: txikizkako denden kokapena, garraio publikoa izatea, eta abar aintzat hartzen du)				
Herritar-talde guztiei* askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko aukera errazten die?				
*(oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, ezintasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)				
Askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan merkaturatzen laguntzen du?				
Jatetxeen eskaintza askotarikoa izaten laguntzen du «zabor-jana» ematen duten jatetxeen ugaritasunaren eta/edo kontzentrazioaren aurrean?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Etxebizitza gehien eta askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan saltzen dituzten denden arteko distantzia egokia* da?				
*(oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)				
2. Ekimenak lurra nekazaritzarako erabiltzea atxikitzen edo hartara birbideratzen laguntzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA:		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
		<input type="checkbox"/> Negatiboa		
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Nekazaritzan erabiltzen diren lurak babestea edo leheneratzea helburu gisa zehaztuta dago?				
Landa-lurzorua eta hiri-lurzorua erabileren arteko balizko gatazkari aurre egiteko neurriak* ezartzen ditu?				
*(oharra: trantsizio-eremua ezartzen du, gertuko bizilagunei jardueren onuren berri ematen die, etab.)				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Lurak okupatzerakoan, nekazaritzako erabilerarako beste balio bat dutela aintzat hartzen du?				
3. Ekimenak tokiko elikagaiak ekoiztea bultzatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA:		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
		<input type="checkbox"/> Negatiboa		
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Tokian askotariko elikagaiak arrazoizko prezioan ekoiztea* babesten du?				
*(oharra: komunitate-baratzeak, hiri-lorategi jangarriak, eta abar izatea)				
Herritar-talde guztiei* komunitate-baratzeak, jateko hiri-lorategiak eta abar erabiltzeko aukera ematen die?				
*(oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, ezintasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Jateko hiri-baratzeak jartzeko espazio ireki egokiren bat aipatzen du?				
Komunitate-baratzeak babestu eta horietarako espazioak sortzea aurreikusten du?				

2. GALDETEGIA MUGIKORTASUNA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak garraio publikoko zerbitzuak sustatzen ditu	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik <small>OROKORRA:</small>			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, garraio publikoko zerbitzuak sustatzea jasotzen al du?				
Dagokion eremua eta gainerako hiri-eremuak lotzeko garraio publikoa izango dela bermatzen al du?				
Garraio publikoa herritarrek tokian bizitzen hasten direnetik bertatik erabilgarri egotea aurreikusten al du?				
Garraio bide publikoen ibilbideak, maiztasuna eta ordutegiak diseinatzeko herritar-taldeen beharrak* kontuan hartzen ditu? *(oharra: ikastetxe, osasun-zentro, aisialdiko eremu, lantoki, negozio-gune, merkataritza-gune eta abarretarako joan-etorriak)				
Ordezko garraio-sistemak sustatzen al ditu? (Adibidez, ibilgailuak partekatzea, taxi-busa eta bizikleten zerbitzu publikoa)				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Egokia* al da garraio bide publikoen geltokien eta herritarren bizilekuen, lantokien eta bestelako eremu erabilien arteko distantzia? *(oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)				
Garraio bide publikoak, estazioak eta geltokiak denentzat irisgarriak izateko moduan diseinatuta al daude?				
Hainbat garraio bide konbinatzea eroso eta lehiakorra* izan dadin sustatzeko neurriak jasotzen al du? *(oharra: ordutegiak koordinatzea, txartel bakarra, tarifak batzea, eta abar)				
Garraio bide publikoen estazioetan edo geltokietan ba al da bizikletak aparkatzeko lekurik eta/edo bizikleten zerbitzu publikorik?				
Garraio bide publikoen estazioetan edo geltokietan ba al da oinarrizko zerbitzurik? (Adibidez, aterpea, eserlekuak, argiztapen egokia, erabiltzaileentzako informazioa*, komunak, edariak eskuratzeko aukera) *(oharra: bidaia oinez edo bizikletaz jarraitzeko aukera, inguruaren mapa, eta abar)				
2. Ekimenak gutxitu egiten du motordun ibilgailuekiko mendekotasuna, eta mugikortasun aktiboa sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik <small>OROKORRA:</small>			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, motordun ibilgailuekiko mendekotasuna txikitzea eta mugikortasun aktiboa sustatzea jasotzen al ditu?				
Joan-etorri aktiboak sustatzeko neurriak* proposatzen al du? *(oharra: konektatutako espaloio seguruak, oinezkoentzako eremuak, abiadura-mugak, ibilgailuak sartzeko mugak, TAO, disuasio-aparkalekuak, eta abar)				
Bizikletaren erabilera sustatzen al du? (Adibidez, «aparkatu eta bizikletaz joan», bizikleten zerbitzu publikoa, bizikletetarako aparkalekua eta horrelako neurrien bidez)				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Hiriguneetan aparkaleku-guneak murriztea sustatzen al du? (Batez ere, garraio publikoko zerbitzu egokia duten inguruetan)				
Elkarren artean ondo konektatutako kaleen eredurik zehazten al du?				
Oinezkoak harrapatzeko arrisku handia duten puntuetan edo inguruetan* segurtasun-neurriak ezarri al dira? *(oharra: trenbide-pasaguneetan, zirkulazio-dentsitate handiko guneetan, oinezkoen edo txirrindularien zirkulazio handiko inguruetan, eta abar)				
Kaleetan oinezko, bizikleta eta ibilgailu motordunen erabilera mugatzeko eta hiriko bizikidetzaren eta bizigarritasuna hobetzen laguntzeko elementurik* ba al dago? *(oharra: abiadura murrizteko neurriak eta/edo espaloioa inbaditzea eragozten duten eremu publikoak babesteko neurriak, eta abar)				
Eraikinetan sartzeko lehentasuna oinezkoen edo txirrindulariei ematen al zaie, eta sarrerak seguruak eta irisgarriak* al dira? *(oharra: autoekin, garajeetako sarrerekin eta abarrekin gatazkak izatea saihesteko)				
Motordun ibilgailuen zirkulazioa moteltzeko eta oinezkoen segurtasuna handitzeko dauden elementuek segurtasunez pasatzen uzten al diete bizikletei?				
Espaloioak eta oinezkoentzako guneak denentzat irisgarriak izateko moduan diseinatuta al daude?				
3. Ekimenak hiri-garapen trinkoa edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik <small>OROKORRA:</small>			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, hiri-garapen trinkoa sustatzea eta lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea jasotzen al du?				
Hiri-antolaketa				
Hiriko bide-sare berriak aurrez dagoen bide-sarearekin konektatzeko aukera ziurtatzen al du?				

3. GALDETEGIA

ONARRIZKO EKIPAMENDUEN SAREA

FUNTSEZKO ALDERIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin, eta kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen bat sortzea helburu gisa zehaztuta al dago?				
Gaur egun dauden eta ez dauden oinarrizko ekipamenduen azterketa egiten du?				
Oinarrizko ekipamenduen beharra planifikatzeko, herritarren proiektzioak aintzat hartzen ditu?				
Herritar-taldeek* dauzkaten oinarrizko ekipamenduen beharrak aintzat hartzen ditu?				
*(oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, ezintasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)				
Oinarrizko ekipamenduak herritarrak tokian finkatzen diren unetik erabilgarri egotea aurreikusten du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Oinarrizko ekipamenduak hartzen dituzten eraikinetatik eta/edo instalazioetatik distantzia egokira* garraiobide publikoan geltokiak daude?				
*(oharra: pertsonak oinez 300-500 m arteko distantziak egiteko prest daude)				
2. Ekimenak oinarrizko ekipamenduak biltzen dituen eraikinari askotariko erabilerak ematea sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Oinarrizko ekipamenduak hartzen dituzten eraikinek edo instalazioek askotariko erabilerak* izatea proposatzen du?				
*(oharra: hezkuntza, jolasa, bilerak, ariketa fisikoak, etab.)				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen artean koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-konektibitatea ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?				
3. Ekimenak herritarrek espazio publikoaren diseinua onartzen eta diseinuak haiengan tokikoak izatearen sentimendua eragiten laguntzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean herritarrengan tokikoa izatearen sentimendua sortzea biltzen du?				
Zerbitzuak emateko eraikin komunitarioen garapenean eta diseinuan herritarrek parte hartzeko sistemarik ezartzen du?				
Herritar-talde guztiak* espazioaren diseinuan parte hartzea aurreikusten du?				
*(oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, mendekotasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)				

4. GALDETEGIA

ENPLEGUA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen ditu	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, tokian tokiko lan-aukerak sortzea jasotzen al du?				
Herritarrei beren bizilekutik gehienez 30 minutura lan-aukerak izatea ahalbidetzen al die?				
Lantoki horietara iristeko, garraio publikoko ibilbideak eta mugikortasun aktiborako bideak identifikatzen al ditu?				
Lantoki horietara iristeko, garraio publikoaren erabilera eta/edo mugikortasun aktiboa sustatzen al ditu?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Egokia* al da garraibide publikoen geltokien eta herritarren bizileku eta lantokien arteko distantzia?				
*(oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)				
2. Ekimenak askotariko lanak lortzeko aukerak sustatzen ditu	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Ekimenaren helburuen artean, askotariko enpleguak* lortzeko aukerak sustatzea al dago?				
*(oharra: askotariko jarduera-sektore eta prestakuntza-mailerako lanak)				
Herritar-talde guztientzako* lan-aukerak bultzatzen al ditu?				
*(oharra: sexuaren, adinaren, prestakuntza-mailaren, desgaitasunaren eta abarren arabera)				
3. Ekimenak tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza jasotzeko aukera sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?				
Tokiko lanak lortzeko prestakuntza-beharrak identifikatzen al ditu?				
Herritar-talde guztiek prestakuntza jasotzeko aukera sustatzen al du?				

5. GALDETEGIA JARDUERA FISIKOA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak aukera ematen du oinez ibiltzeko, bizikletaz ibiltzeko eta mugikortasun aktiboko beste modu batzuen bidez mugitzeko	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, mugikortasun aktiboaren edozer modalitate bultzatzea jasotzen al du?				
Mugikortasun aktiboa ahalbidetzen duten bideak barne hartzen al ditu?				
Mugikortasun aktiborako bideak herritarrek bertan bizitzen hasten direnetik bertatik al daude erabilgarri?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Mugikortasun aktiborako bideek ekimenak hartzen duen esparru osoa estaltzen al dute?				
Bideek bizitegi-guneak eta inguruko oinarriko zerbitzuak* lotzen al dituzte? <small>*(oharra: ikastetxea, merkataritza-guneak, garraio publikoa, lantokiak, etab.)</small>				
Mugikortasun aktiborako bideak udalerriko edo udalerriz gaindiko beste bide batzuekin lotzen al ditu?				
Bideen topografia aintzat hartzen al du, maldak minimizatzeko eta ordeko pasabideak emateko?				
Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasun segurua* sustatzen al du? <small>*(oharra: oinezko eta txirrindulari asko ibiltzen diren inguruetan zirkulazioa arintzeko neurriak ezartzea, ibilgailuen bidegurutzeak gutxitzea, seinale argiak ipintzea, etab.)</small>				
Kaleen diseinuak oinezkoak eta txirrindulariak erraz eta eroso* ibiltzea ahalbidetzen al du? <small>*(oharra: ahal bada, honako hauek jartzea: espaloiak kalearen bi aldeetan, oinezkoak eta bizikletak desplazamendu-lerro zuzenenean pasatzeko bideak, bideetan atsedean hartzeko altzariak, trafikoaren ikuspegi argi batean oinarritutako bidegurutzeak edo biribilduneetan oinezko eta txirrindularientzako alternatibak)</small>				
Bizikletaren erabilera sustatzen al du*? <small>*(Neurri posibleak: bizikletetarako aparkaleku seguru eta zabalak helmuga nagusietan, txirrindulariek identifikatzeko moduko bideak, bi bizikleta kontrako norabidean eroso ibiltzeko adinako zabalerako bideak, aldirietako aparkaleku gisa erabiltako eremuen inguruan txirrindularientzako bideak, etab.)</small>				
Oinezkoentzako eremuak herritar guztientzako irisgarriak izateko moduan diseinatu al dira (plaza publikoak, bideak, bidexkak, merkataritza-guneak, etab.)?				
2. Ekimenak aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzea sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak sustatzea jasotzen al du?				
Beharren aurretiazko azterketarik egin al da, aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekien kopurua eta kokapena zehazteko?				
Eremuan dauden aukerak aisialdi aktiborako egokiak diren beste espazio batzuekin osatzen al ditu?				
Espazio horien diseinuaren eta kudeaketaren bidez, beste hainbat jarduera egiteko aukerak ematen al ditu?				
Espazio horiek herritarrek bertan bizitzen hasten direnetik bertatik erabilgarri egotea proposatzen al du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Egokia* al da aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekien eta etxebizitza gehienen arteko distantzia? <small>*(oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)</small>				
Aisialdi aktiborako espazio publiko irekiak kokatzeko orduan, aintzat hartu al da herritarren dentsitatea, erabiltzeko aukera-berdintasuna bultzatzeko?				
Aisialdi aktiborako espazio irekirik ez dagoen tokietan aurreikusi al da aukeren gabezia betetzeko estrategiarik?				
Aisialdi aktiborako moduko espazio publiko irekiak seguruak eta irisgarriak al dira oinezkoentzat eta txirrindularientzat?				
Adin-talde bakoitzarentzat irisgarriak eta egokiak al dira aisialdi aktiborako diseinatu diren espazio publiko irekiak?				
Aisialdi aktiborako proposatutako baliabideak eta/edo altzariak egokiak al dira herritar guztientzat?				
Bideen edota jarduera fisikoa egiteko eremuen erabilera sustatzen al da, aire libreko gimnasioen eta/edo entrenatzeko gailuen bidez?				

6. GALDETEGIA

ESPazio PUBLIKO IREKIAK

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak berdeguneen eta/edo inguru naturalen erabilera sustatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean berdeguneak eta/edo espazio naturalak sortzea jasotzen du?				
Berdeguneen eta/edo inguru naturalen kopurua eta kokapena zehazteko, beharren aurretzako azterketa egiten du?				
Berdeguneak eta/edo inguru naturalak babesten ditu edo haien egoera hobetzen du?				
Bizitegi-guneak eta berdeguneak eta/edo inguru naturalak bide-sareen, bidexken eta/edo garraio publiko bidez konektatzea aurreikusten du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Berdeguneetatik eta/edo inguru naturaletatik distantzia egokira* garraio publikoko geltokiak daude? <small>* (oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)</small>				
Herritarrek aktiboki eta seguru joan daitezke bizitegi-guneetatik berdeguneetara eta/edo inguru naturaletara?				
2. Ekimenak espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta seguruak bultzatzen ditu	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Espazio publiko irekien irisgarritasuna, erakargarritasuna eta segurtasuna bultzatzea helburu gisa zehazten du?				
Espazio publiko irekiei askotariko erabilerak ematea* aurreikusten du? <small>* (oharra: aisialdirako, atsedeen hartzeko, ikasteko, jolasteko, biltzeko, ariketa fisikoak egiteko, eta abarrerako aukerak)</small>				
Espazio publiko irekiak erakargarriak izateko eta jendea horietan geratzera animatzeko elementuak/ ekipamendua* jartzea aurreikusten du? <small>* (oharra: hiriko altzariak, komunak, iturriak, merenderoak, itzalak, zuhaitzak, landaredia, argiztapen egokia, etab.)</small>				
Espazio publiko irekien diseinua eta erabilerak ezartzeko, zirkulazioa, istripuak eta delinkuentzia aintzat hartzen ditu?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Espazio publiko irekiak ikusgaitasun zabala du, eta ez dago ezkutatzeko lekurik?				
Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegiak, ikastetxeak eta gizarte-kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?				
3. Ekimenak herritarrek espazio publikoaren diseinua onartzen eta diseinuak haiengan tokikoak izatearen sentimendua eragiten laguntzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean herritarrengan tokioa izatearen sentimendua sortzea biltzen du?				
Espazio publiko irekiak garatzen eta diseinatzean herritarrek parte hartzeko sistemaren bat ezartzen du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Herritar-talde guztiek* espazioaren diseinuan parte hartzea aurreikusten du? <small>* (oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, mendekotasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)</small>				
4. Ekimenak garrantzi naturala, historikoa eta/edo kulturala duten lekuak babesten eta/edo hobetzen ditu	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean garrantzi naturala, historikoa eta kulturala duten lekuak babestea eta/edo hobetzea jasotzen du?				
Garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten tokiak babestea bultzatzen du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten tokiak katalogatzen ditu?				
Natur, historia eta/edo kulturaren ikuspegitik garrantzitsuak diren lekuak adierazteko informazio-seinale egokiak daude?				

7. GALDETEGIA ETXEBIZITZA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak etxebizitzak osasungarriak izatea bultzatzen du, bai biztanleei dagokienez, bai ingurumenari dagokionez	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Bai egoiliarrei bai ingurumenari begira osasungarriak diren etxebizitzak bultzatzea helburu gisa zehazten du?				
Etxebizitzak egoiliarrentzat osasungarriak izatea bultzatzen al du*?				
*(oharra: kanpoko eta barneko erasoetatik babesten du; pilaketa saihesteko adinako neurria du; ur-, argi- eta saneamendu-instalazioak ditu; isolamendu eta aireztapen egokiak ditu; nahikoa argi natural du)				
Garapen trinkoa eta/edo hiri-eremuan integratzea bultzatzen al du, eta hala, gizarte-konektibitatea?				
Etxebizitzetatik lantokietara eta oinarrizko zerbitzu nahiz ekipamenduetara joateko, mugikortasun aktiboa bultzatzen al du?				
Etxebizitza jasangarri eta ekoeraginkorrak bultzatzen al ditu?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Egokia* al da etxebizitzaren eta oinarrizko zerbitzuen, ekipamenduen eta garraio publikoko geltokien artean dagoen tartea?				
*(oharra: jendea prest dago oinez 300-500 m arteko tartea egiteko)				
Etxebizitzaren espazio komunetan ba al da bizikletetarako aparkalekurik?				
2. Ekimenak askotariko etxebizitzak izatea bultzatzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, etxebizitzaren aniztasuna bultzatzea al dago?				
Hainbat motatako eta neurritako etxebizitzak sortuko al ditu eremu berean?				
Egokitzeko aukera ematen duten oztopo fisikorik gabeko etxebizitzak bultzatzen al ditu, pertsonak seguru, eroso eta modu autonomoan bizi daitezen?				
3. Etxebizitzak arrazoizko prezioak izatea bultzatzen du ekimenak	<input type="checkbox"/> Positiboa	OROKORRA: <input type="checkbox"/> Negatiboa		<input type="checkbox"/> Ez du eraginik
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, etxebizitza eskuragarriak eskaintzea jasotzen al da?				
Inguru berean, askotariko edukitza-erregimenetako etxebizitzak, herritar-taldearen eskuratze-ahalmenera egokituak, sortzea jasotzen al du?				
Ekimen honen onuradun izaterik ez duten pertsonak eta/edo taldeak babesteko estrategiarik aurreikusten al du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Arrazoizko prezioa duten etxebizitzak garapen urbanistiko osoan banatzen al dira, inguru bakar batean bildu gabe?				
Arrazoizko prezioa duten etxebizitzak gainerakoetatik ez bereizteko moduan diseinatu dira?				

8. GALDETEGIA SEGURTASUNA ETA BABESA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak espazio publikoetan herritarren segurtasuna eta babesa bultzatzen ditu	OROKORRA:			
	<input type="checkbox"/> Positiboa	<input type="checkbox"/> Negatiboa	<input type="checkbox"/> Ez du eraginik	
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Espazio publikoetan herritarren segurtasuna eta babesa bultzatzea helburu gisa zehazten al du?				
Identifikatzen al ditu erasoak edo gatazkak gertatzeko arrisku handiena duten guneak/inguruak, herritar-taldeak aintzat hartuta?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Ikus-eremu ona eta zaintza naturala bultzatzen al ditu espazio publikoan, egoiliarrek eta oinezkoek ikusi ahal izateko eta besteek egoiliarrek eta oinezkoak ikusi ahal izateko?				
Espazio publikoan erraz eta seguru* ibiltzeko aukera bultzatzen al du?				
<small>* (oharra: trazadura sinple eta logikoa, eta seinaleztapen egokia)</small>				
Hirigunearen erabilera misto bateragarria* bultzatzen al du?				
<small>* (oharra: hainbat jarduera, gaueko ordutegien erabilera egokiak, etab.)</small>				

9. GALDETEGIA INGURUMENA

FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA			
1. Ekimenak airearen kalitatea hobetzen lagutzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, airearen kalitatea hobetzea jasotzen al du?				
Ekimenaren diseinuak biltzen al ditu garraio publikoko sareak eta mugikortasun aktiborako bideak?				
Herritarrak bertan bizitzen hasten direnetik al dute garraio publikoko zerbitzua erabiltzeko aukera?				
Garraio publikoaren erabilera bultzatzeko estrategiarik jasotzen al du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Bizitegi-guneak ibilgailuen zirkulaziotik urrun al daude, substantzia kutsatzaileen eraginpean ez egoteko?				
Bizitegi-guneak airera isurpenak egiten dituzten industria-jardueretatik edo ekoizpen-prozesuetatik urrun al daude, substantzia kutsatzaileen eragina txikitzeko?				
2. Ekimenak uraren kalitatea hobetzen edo eskaera txikitzen lagutzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Uraren kalitatea hobetzea eta/edo eskaera txikitzea helburu gisa zehazten al du?				
Ibai-arroak zainduz, uraren ziklo naturala babesten al du?				
Uraren askotariko erabilerak* aintzat hartzen al ditu? *(oharra: kontsumitzeko, ureztatzeko, aisialdirako, etab.)				
Ureztatzeko ura modu jasangarrian erabiltzeko neurririk ezartzen al du?				
Gizakiek ur gutxiago kontsumitzeko neurririk ezartzen al du?				
3. Ekimenak gutxitu egiten ditu zaratekin, usainekin eta/edo argiztapenarekin lotutako arazoak	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, zaratekin, usainekin eta/edo argi-kutsadurarekin lotutako arazoak gutxitzea jasotzen al du?				
Zaratek, usainek eta/edo argiztapenak eragindako balizko arazoak kontuan hartu, eta lurzoruaren erabilerak kokatuz edo bereiziz tratatzen al ditu?				
Aurretik dauden merkataritza-guneetatik eta/edo industrialdeetatik gertu eraikitako bizitegi-gune berrietan zaratarai aurre egiteko neurririk ezartzen al du?				
Aurretik dauden bizitegi-guneetatik gertu ezartzen diren jarduera berrietako zaratei, usainei eta/edo argiztapenari aurre egiteko neurririk ezartzen al du?				
Landa-inguruetan eraikitako bizitegi-gune berriei nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren ondoriozko balizko eragozpenei aurre egiteko neurririk ezartzen al du?				
Hiri-antolaketa	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Instalazioetan/eraikinetan zaratak sortzen dituzten iturriak ahalik eta eragozpen txikienak eragiteko moduan kokatuta al daude?				
Gune publikoetako gaueko argiztapena alboko bizitegi-guneetan ahalik eta inpaktu txikiena izateko moduan diseinatuta al dago?				
4. Ekimenak murriztu egiten ditu jatorri naturala edo antropogenikoa duten arriskuak	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Helburuen artean, jatorri naturala edota antropogenikoa duten arriskuak murriztea jasotzen al du?				
Aintzat hartzen al ditu uholdeen, gainezkatzeen, baso-suteen, enbaten, ekaitzen eta bestelako hondamendien ondorioak?				
Aintzat hartzen al du zorua kutsatzeko aukera?				
Murrizten al ditu goi-tentsioko lineen eremu elektromagnetikoen, irrati-difusiorako dorreen eta energia sortzen duten zenbait industriaren eraginpean egoteak herritarrengan izan ditzakeen ondorioak?				
5. Ekimenak klima-aldaketa arintzen lagutzen du	<input type="checkbox"/> Positiboa <input type="checkbox"/> Negatiboa <input type="checkbox"/> Ez du eraginik			
Galdera orokorra	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharrak
Klima-aldaketaren ondorioak gutxiagotzea helburutzat du (arintzea eta egokitzea barne hartuta)?				
Berotegi-efektuko gasen isurpena txikitzeko neurririk biltzen al du?				
Efizientzia energetikorako diseinurik jasotzen al du?				
Energia berriztagarrikeria erabiltzen al du?				

3. ERANSKINA

KASU PRAKTIKOAREN AMAIERAKO TXOSTENA IGOGAILU PUBLIKO BAT ERAIKITZEA ETA BI ESPAZIO PUBLIKO EKIPATU SORTZEA

1. TESTUINGURUAN KOKATZEA: UDALERRIA, EKIMENA ETA PARTE HARTZEA

TESTUINGURUA

Udalerria: **LH:**..... **Biztanleak:** 30000

Deskribapen geografikoa: Ibar batean kokatutako 30.000 biztanle inguruko udalerrri bat da. Ibarrek hirigintza-garapen puntualak izan ditu, baina handiak ibarraren hegalean; horren ondorioz, hainbat gune, isolatuta ez badaude ere, ez dira iristen errazak, haietara joateko malda handia gainditu beharra baitago.

Lotutako planak: Indarreko plangintzei dagokienez, ondokoak nabarmentzen dira:
 — Toki Ekintzarako Planak (TEP-TA21),
 — Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN),
 — Mugikortasun eta Irisgarritasun Plana,
 — Gazteria Plana,
 — Hirugarren Adinekoentzako Plana,
 — Immigrazio Plana.

EKIMENA

Izenburua: **Igogailu publiko bat eraikitzea eta bi espazio publiko ekipatu sortzea.**

Jasota TEP-TA21ean: BAI **Código PAL:** 2.4.1 y 2.4.2 **Ámbito temático:** MUGIKORTASUNA

Deskribapen laburra: Ekimenaren bidez igogailu publiko bat eraikiko da, udalerrriaren goialdean dauden auzoetara iristeko arazoak murrizteko. Auzo horietan 5.000 biztanle inguru daude, biztanleen seiren bat. Horrez gain, auzo batean urbanizatu gabeko bi lursail hornituko dira (2.000 m² inguru) eta bertan ipiniko dira eserlekuak, kulunkak eta «gimnasio urbanizatu» bat, berau harremanetarako eta aisialdirako espazio bihur dadin. Plangintzan (HAPN) «ekipamendu-erabilera» gisa jasota daude lursail horiek; eta berariazko klausula batek dio «Lurzorua kutsa dezaketean jarduerak edota instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa»n kontsulta eginda horiek ez daudela bertan jasota. Horrez gain, ez dute lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik hartu kontsulta hori egin aurretik eta ondoren. Bi ekimenak jasota daude udalerriko Tokiko Agenda 21ean, zehazki 2.4.1 eta 2.4.2 Ekintzetan, espazio publikoa hobetzeko ildo estrategikoaren Tokiko Ekintza Planaren barruan, udalerrriaren mugikortasun- eta irisgarritasun-planarekin bat etorrira.

Nork sustatzen du?: Udala bera da sustatzailea.

Xedea:

1. Udalerrriaren goialdean dauden auzoetara iristeko arazoak murriztea.
2. Gune horietan bizi diren pertsonentzat ibilgailu motordunaren mendekotasuna murriztea.
3. Espazio publikoa aisialdi eta harremanetarako gune modura sustatzea.

Eragindako barrutia/auzoa:	Elkarrekin lotutako bi auzo, udalerriko muino batean kokatuta. Bi sarbide daude, hegalarren bi aldeetatik bana; eta zenbait tartetan malda aski piko dago (% 12). Bide horiek ibilgailuak zein oinezkoak sartzeko dira. Espaloiak, batzuetan, nahiko estuak dira, eta bi noranzkoetan aldi berean igarotzea zailtzen du horrek.
Eragindako biztanleak:	5.000
Ezaugarri demografiko eta sozioekonomiko nabarmenak:	Etxebizitza horietan eraiki zituztenetik bizi direnak adinean aurrera doaz, baina belaunaldien arteko erreleboa gertatzen ari da, halere. Kokapena eta irisgarritasuna dela-eta, ez da oso auzo erakargarria; nolana ere, etxebizitzak merkeagoak direnez gazteak hara joan dira, eta familia-nukleo berriak osatzen hasi dira. Horrenbestez, jaiotza-tasak gora egin du aurreko udal-eroldaren aldean.
Gehien eragindako biztanle taldeak:	Pertsona adindunak edota mugikortasuna murriztuta dutenak hartzen dira gehien eragindako herritar talde gisa. Era berean, familia-nukleo berriak sortzeak haur-aulkiak erabiltzea ere badakar, eta maldak eta espaloi estuak direla-eta, biztanle horietako asko lekualdatu behar dutenean ibilgailua erabiltzera ohitu dira. Hein txikiagoan, eragin negatiboa izan dezake lehen oinez lekualdatu eta orain igogailua erabiliko duten pertsonengan. Espazio publikoei dagokienez, onura handien eskuratuko duten pertsonak adinekoak, adingabeak dituzten familiak eta gazteak izango dira.
Ekimenaren fasea:	Aurretiazko kontsultaren fasean.
Eragiteko ahalmena:	Ekimena proiektua idazteko kontsultaren fasean dagoenez, berau hobetzeko dagoen eragiteko ahalmena nahiko handia da, eta baliteke egingarria izatea.

BARNE PARTE HARTZEA

Erabilitako mekanismoak:	Sailen arteko lan-bilerak.
Esku hartutako sailak:	Hirigintza eta esparru publikoaren arloak (proiektuko buruak); Gizarte gaien arloa eta Toki jasangarritasunerako arloa.
Tipologia:	Erabakitzailea.
Emaitzak:	Ondokoa erabaki da: Eragindako auzoentzat informazio-saio bat deitzea, eta, proposamenak biltzen duen erantzunaren eta harrera-mailaren arabera, honako mekanismo hauek abiaraz daitezten aztertzea. <ol style="list-style-type: none"> 1. Udal Batzordean berriaz lantzea. 2. Herritarren parte-hartzea prozesuan sustatzea. Auzoen funtsezko eragileekin informazio-bilerak deitzea eta egitea finkatu beharreko maiztasunarekin. 3. Gizarte-gaien arloko pertsona bat eta aldi baterako arreta pertsonalerako gune bat jartzea auzoan, baita kexak edo iradokizunak jasotzeko postontzi bat ere, bertan bizi direnentzat, lanetan ager litezkeen arazo berri jasotzeko.

Oharrak:

UDALAZ GAINDIKO PARTAIDETZA

Oharrak: Ez dira beharrezkoak izan. Azterketa sakonaren ostean, Udalak iritzi dio ez dela beharrezkoa, nahasitako espazio publikoa erabiltzea bateragarria baita indarreko plangintzan jasotako erabilerekin.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Erabilitako mekanismoak: Komunitaterako informazio-saioa (2014/01/15).

Aintzat hartutako biztanle taldeak: Auzoan egoitza duten elkarreak (erretirodunak eta dendariak), auzoko farmazia.

Tipologia: Informatzailea.

Emaitzak: 2014ko urtarrilaren 15ean, eragindako auzoetan 1,5 orduko informazio-saio bat egin da, eta bertan egiaztatu da ekimenak oso harrera ona duela. Nolanahi ere, biztanle batzuen artean nolabaiteko kezka hauteman da udalerriko gainontzeko biztanleek haien «espazioa inbaditzeko» aukeraren aurrean, auzoaren beraren balioetan eta nortasunean eraginda. Gaez igogailuari zein hornitutako espazioei eman liezaieketen erabilerak kezkatzen ditu gehienbat.

Oharrak: Ondorioz, herritarrek parte hartzeko prozesua aktibatzea aurreikusi da (gehienez 3 foro eta izaera aholku-emaile zein erabakitzailearekin); informazio pertsonalerako gunea eta iradokizunen postontzia, eta aldian-aldian udal-batzordera eramatea.

2. EKIMENAK ERAGINDAKO OSASUN -MUGATZAILEAK

MUGIKORTASUNA SEGURTASUNA ETA BABESA	JARDUERA FISIKOA INGURUMENA	ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK
---	--------------------------------	-------------------------

3. OSASUNEAN ERAGINA IZAN LEZAKETEN FUNTSEZKO ALDERDIAK

ERAGIN POSITIBOA

MUGIKORTASUNA

Ekimenak hiri-garapen trinkoa eta/edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea sustatzen du.

Ekimenak ibilgailu motordunekiko mendekotasuna txikitu, eta mugikortasun aktiboa sustatzen du.

JARDUERA FISIKOA

Ekimenak aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzea sustatzen du.

LEKU PUBLIKO IREKIAK

Ekimenak espazio publiko ireki irisgarriak, erakargarriak eta seguruak bultzatzen ditu.

INGURUMENA

Ekimenak airearen kalitatea hobetzen laguntzen du.

Ekimenak gutxitu egiten ditu zaratekin, usainekin eta/edo argiztapenarekin lotutako arazoak.

Ekimenak klima-aldaketa arintzen laguntzen du.

ERAGIN NEGATIBOA

LEKU PUBLIKO IREKIAK

Ekimenak ez du laguntzen espazio publikoaren diseinua herritarrek onartu eta tokikoa izatearen sentimendua eragiten.

SEGURTASUNA ETA BABESA

Ekimenak ez ditu herritarren segurtasuna eta babesa bultzatzen espazio publikoetan.

4. HOBETU DAITEZKEEN ALDERDIAK

JARDUERA FISIKOA

Alderdi espezifikoa:	Oinezkoei eta bizikletariei aisialdi aktiborako irekiak diren espazio publikoetara sarbidea erraztea.
Oharrak:	Guneetako bat kota garaiago batean dago, eta 4 eskailera-mailaren bidez du sarbidea. Bideak mugatu eta seinaleztatzea ere komenigarria litzateke oinezkoak igogailura eta espazio publikoetara modu erraz eta seguruan iristeko.
Alderdi espezifikoa:	Adin-talde bakoitzarentzat irisgarriak eta egokiak diren aisialdi aktiboko espazio publiko irekiak diseinatzea.
Oharrak:	Gimnasio urbanizatua kokaturik dagoen parkeko goragoko alde horretarako ez da baranda duen sarbide unibertsaleko arrapala bat aurreikusi. Jolas askea ahalbidetzen duen gune irekirik ere ez da aurreikusi (baloiak, harrapaketan jolastea, patinak...).
Alderdi espezifikoa:	Aisialdi aktiborako proposatutako baliabideak eta/edo altzariak herritar guztientzat egokiak izatea.
Oharrak:	Altzarien kokapenak eta sakabanaketak jolas askerako eremu ireki eta garbi bat prestatzea eragozten du. Eserlekuetan, gehienez, bi pertsona eser daitezke eta harremanak egitea zailtzen duten lekue- tan ipini dira. Ez dago itzalpeko gune nahikorik, ezta estalitakorik ere euria egiten duenerako.

ESPAZIO PUBLIKO IREKIA

Alderdi espezifikoa:	Espazio publiko irekietan erakargarriak izateko eta jendea horietan geratzera animatzeko elementuak/ekipamendua* jartzea. *(oharra: hiriko altzariak, komunak, iturriak, merenderoak, itzalak, zuhaitzak, landaredia, argiztapen egokia, etab.)
Oharrak:	Argiak, komunak eta iturria positiboak badira ere, horiek eguraldiaren eraginetik (eguzkia, euria) babesteko elementuekin hobetzea aztertu beharko litzateke, baita bankuen banaketa eta kokapena ere.
Alderdi espezifikoa:	Espazio publiko irekien diseinua eta erabilerak ezartzeko, zirkulazioa, istripuak eta delinkuentzia aintzat hartzea.
Oharrak:	Auzoko errepidearen aldameneko gune txiki batean ez da babesteko elementurik aurreikusi. Zirkulazioa handia ez bada ere, deskuidurik gerta daiteke, bereziki adingabeen kasuan.
Alderdi espezifikoa:	Helburuen artean herritarrengan tokikoa izatearen sentimendua sortzea biltzea.
Oharrak:	Hasieran proiektuaren zirriborroak ez du alderdi hori esplizituki jasotzen.
Alderdi espezifikoa:	Hasieran proiektuaren zirriborroak ez du alderdi hori esplizituki jasotzen. *(oharra: sexuaren, adinaren, maila sozioekonomikoaren, etniaren edota jatorriaren, mendekotasunaren, bizilekuaren, eta abarren arabera)
Oharrak:	Informazio-saiorako, erretiratuen elkarte eta auzoko dendariena hartu dira kontuan, baina ez da kontsultarik egin nerabe eta adingabeak dituzten familien moduko taldeei diseinuari eta beren beharrezanez buruz, eta azken talde horiek espazio publikoa maiz erabiliko dutela aurreikusi da.

SEGURTASUNA ETA BABESA

Alderdi espezifikoa: Espazio publikoetan herritarren segurtasuna eta babesa bultzatzea helburu gisa zehaztea.

Oharrak: Hasieran proiektuaren zirriborroak ez du alderdi hori esplizituki jasotzen.

Alderdi espezifikoa: Ikuseremu ona eta zaintza naturala bultzatzea espazio publikoan, egoiliarrek eta oinezkoek ikusi ahal izateko eta besteek egoiliarrak eta oinezkoak ikusi ahal izateko.

Oharrak: Igogailuak ez du horma gardenik eta, beraz, ezin da kanpotik igogailuaren barnean zer dagoen ikusi. Oso garrantzitsua da ikus-eremu ona eta zaintza naturala bultzatzea espazio publikoan, egoiliarrek eta oinezkoek ikusi ahal izateko eta besteek egoiliarrak eta oinezkoak ikusi ahal izateko.

INGURUMENA

Alderdi espezifikoa: Airearen kalitatea hobetzeko helburua biltzea.

Oharrak: Hasieran proiektuaren zirriborroak ez du alderdi hori esplizituki jasotzen.

Alderdi espezifikoa: Ekimenaren diseinuak garraio publikoko sareak eta mugikortasun aktiborako bideak biltzea.

Oharrak: Igogailurako sarbideetik gertu igarotzen den bidegorri bat dago, instalazioaren behealdean; hori luzatzeko aukera azter liteke harekin lotzeko.

Alderdi espezifikoa: Garraio publikoaren erabilera bultzatzeko estrategiaren bat jasotzea.

Oharrak: Igogailurako sarbideetik gertu igarotzen den autobus-linea bat dago, instalazioaren behealdean, udalerriko erdigunearekiko lotura egiten duena. Ibilbidea aldatzea azter liteke bi sistemak bateratzearen.

Alderdi espezifikoa: Klima-aldaketaren ondorioak gutxiagotzea helburutzat ezartzea (arintzea eta egokitzea barne hartuta).

Oharrak: Hasieran proiektuaren zirriborroak ez du alderdi hori esplizituki jasotzen.

5. OSASUNEAN IZAN LITEZKEEN EMAITZAK

MUGIKORTASUNA

FUNTSEZKO ALDERDIA: Ibilgailu motordunekiko mendekotasuna txikitzea, eta mugikortasun aktiboa sustatzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Jarduera fisikoa sustatuta kausa guztiengatiko hilkortasuna murrizten da.
- Jarduera fisikoa sustatzeagatik gaixotasun kardiobaskularrak, minbizi mota batzuk eta II motako diabetesa pairatzeko arriskua murrizten da.
- Zirkulazioko istripuengatiko heriotzen eta ezintasunen kopurua murrizten da.

FUNTSEZKO ALDERDIA: Hiri-garapen trinkoa eta/edo lehendik dauden hiri-eremuetan integratzea sustatzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Osasun mentala eta norberaren estimua hobetzen dira, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da komunikazioa eta gizarte-harremanak lagunduta.
- Osasunean ekitatea hobetzen da pertsona guztiek produktuak eta zerbitzuak eskura ditzaten lagunduta.

JARDUERA FISIKOA

FUNTSEZKO ALDERDIA: Aisialdi aktiborako egokiak diren espazio publiko irekiak erabiltzea sustatzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Kausa guztiengatiko hilkortasuna murrizten da.
- Gehiegizko pisua eta loditasuna prebenitzen da.
- Gaixotasun kardiobaskularrak, minbizi mota batzuk eta II motako diabetesa pairatzeko arriskua murrizten da.
- Mugikortasuna handitu eta oreka hobetuta istripuzko ererikoetan lesioak izatea, osteoporosia eta artrosia prebenitzen dira.
- Osasun mentala hobetzen da, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da komunikazioa eta gizarte-harremanak lagunduta.

ESPAZIO PUBLIKO IREKIA

FUNTSEZKO ALDERDIA: Espazio irisgarriak, erakargarriak eta seguruak ematea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Osasun mentala eta norberaren estimua hobetzen dira, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da komunikazioa eta gizarte-harremanak lagunduta.

FUNTSEZKO ALDERDIA: Tokikoa izatearen sentimendua sortzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Osasun mentala eta norberaren estimua hobetzen dira, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da osasunaren autoebaluazioa eta gizarte-harremanak lagunduta.
- Estres-mailak eta gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko arriskua murrizten da segurtasun- eta babes-sentipena handituta.

SEGURTASUNA ETA BABESA

FUNTSEZKO ALDERDIA: Herritarrengan segurtasuna eta babesa (egiazkoa edo hautemana) sortzen dituen hiri-ingurune fisiko bat sortzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Estres-mailak eta gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko arriskua murrizten da.
- Osasun mentala eta norberaren estimua hobetzen dira, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da komunikazioa eta gizarte-harremanak lagunduta.

INGURUMENA

FUNTSEZKO ALDERDIA: Airearen kalitatea hobetzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen dira, eta kausa guztiengatiko hilkortasuna murrizten.
- Arnas eta bihotz-gaixotasunak, biriketako minbizia eta maskuriko minbizia pairatzeko arriskua murrizten da.
- Zirkulazioa murriztuta haurren asma-kasuak murrizten dira.

FUNTSEZKO ALDERDIA: Zaratekin, usainekin eta/edo argiztapenarekin lotutako enbarazuak ahalik eta gehien murriztea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Loaldiaren kalitatea eta kontzentrazioa hobetuta istripuzko lesioak pairatzeko arriskua murrizten da.
- Osasun mentala hobetzen da, eta depresioa eta antsietatea pairatzeko arriskua murrizten da kohesioa eta gizarte-harremanak lagunduta.
- Hautzaroan garapen kognitiboa laguntzen da.
- Usainekin lotutako eragozpenengatik izan litezkeen ondorio somatiko kaltegarriak murrizten dira (goragaleak, oka egitea, buruko mina).
- Estres-mailak murrizten dira.

FUNTSEZKO ALDERDIA: Klima-aldaketa arintzen laguntzea.

ERAGINAK OSASUNEAN:

- Muturreko klima-fenomenoekin lotutako gaixotasunak pairatzeko arriskua eta hilkortasuna murrizten dira (bero-boladak, uholdeak...).
- Osasunean ekitatea hobetzen da.

